

Kultura

Amaia Lejarreta: "Oso anitza da erakusketa, sortzen ibili naizeneko sentimenduak ere askotarikoak izan direlako" > 13



Mercadona eta Lidl zabaltzeko, lurak birkalifikatu gura ditu udalak, Muruetan

Abadiñoko Udalak atea zabaldu dio Muruetako lurren birkalifikazioari, Mercadonak eta Lidlek merkataritza-gunea zabaltzeko: legeak behartzen duen parte-hartze prozesua abiatzea onartu dute udalbatzarrean. Alkateak irekieraren alde egin du, 80 lanpostu sortuko lirakeela argudiatuta. Hainbat herritarrek merkataritza-gunearen kontrako sinadurak batzen dihardu *change.org*-n. > 9

"Tokiko produkzioa eta hurbileko kontsumoa sustatu gura ditugu"

Urtza Uriarte | Zornotzako Iraunkor elkarteko kidea > 18



Non dira?

1937ko martxoaren 31ko bonbardaketetan hildako 84 pertsonen gorpuak bi hobi komunetan lurperatu zituzten, Durangoko hilerrian. 79 urte geroago, inork ere ez du gaia aztertu. Durangaldean beste 6 hobi komun lokalizatuta daude. > 4-8



Lehior Elorriaga



Doctor Deseo taldearen liburu+CD+DVD berriaren **AURKEZPEN AKUSTIKOA**

IGUAL Y DIFERENTE
UNA MIRADA DISTINTA

Apirilaren 7an,
eguna, 19:00etan.

hitz artekalea, 14 durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com #aurkezpena



MACOBER

Eraikuntzarako materiala

MACOBER

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

Elorrio > 2

Udalak aholkularitza zerbitzua emango die AHTaren kaltetuei

Durango > 9

Ika-mika EH Bilduk udal langile baten inguruan esandakoagatik

Mañaria > 8

Udalaren zor ekonomikoa ia erdira bajatu da bost urtean

Zornotza > 11

Herritarren iritzia jasoko dute hiri antolamendu plana burutzeko

Herririk herri

AHTaren kaltetuei aholkularitza tekniko-juridikoa emango die udalak

Aidazu eta Iguria auzoetan inpaktua “oso handia” izango dela dio udalak



Duela aste bi Adif, udala, Espainiko Gobernuaren ordezkariak eta lursailen jabeak Elorrion batu ziren.

ELORRIO Jone Guenetxea Espainiar Gobernuako Delegazio-ordeko ordezkariak, ADIFEko langileak, lursailen jabeak eta Elorrioko alkatea AHTaren desjabetzeen eremuetara joan

ziren duela bi aste. Udal ordezkariak diotenez, “Elorrioko Udalak hainbatetan eskatu du, legeak agintzen duen bezala, desjabetze-aurretiko aktak bertan sinatzea”. Urrian, udale-

txean sinatzeari uko egin zion, eta urtarrilean gauza berbera egin zuen Gobernuako Delegazio-ordeko bulegoetan, Bilbon, lege-prozedura ez zela errespetatzen argudiatuta.

Idoia Buruaga Elorrioko alkateak dioenez, udal gobernuak kaltetutako herritarrei babesa helarazi gura die. “Gure esku dagoen guztia egingo dugu AHTa Elorriotik igarotzea saihesteko, eta, igaro behar bada, ahalik eta eragin gutxien izan dezan”.

Udalak gogorarazi duenez, AHTaren erdigunean dago Elorrio, sei tarte eraikiko baitira herrian. Duela aste bi eginiko desjabetze-aurretiko aktak Elorrio-Elorrio tarteari dagozkio-

Duela aste bi egin zituzten desjabetze-aurretiko aktak Elorrio-Elorrio tarteari dagozkio

nak dira, “besteak aurrerago egingo direlakoan”. Elorriok jasango duen ingurumen inpaktua “oso handia” dela azaldu du udalak, batez ere Aidazu eta Iguria auzoetan. “Kalte horiek ahal den heinean ekiditeko”, udalak, dagoeneko, martxan jarri du kaltetuei zuzendutako aholkularitza tekniko-juridikoa. “AHTaren obrak martxan jarriko balira, jarraipen batzorde bat osatuko genuke aholkularitza zerbitzuarekin, kaltetuekin, udal-teknikariekin eta ordezkari politikoekin”.

Berrizko jaiak iragartzeko kartel lehiaketa, martxan

BERRIZ M. Zuazubiskar 2016ko San Pedro eta Santa Isabel jaiak iragartzeko kartel lehiaketa martxan jarri dute, Berrizen. Udalak, kaleratutako oinarrietan azaldu duenez, adin guztietako pertsonen parte hartu dezakete, eta gura beste lan aurkeztu daitezke. Lanak udal liburutegian utzi beharko dira, apirilaren 29a baino lehen. Kartelak euskarri digitalean eta euskarri zurrunean aurkeztuko dira, eta 60x40 zm-ko neurria izan beharko dute. Udalak sari nagusi bi emango ditu lehiaketan, 400 eurokoa lan irabazlearentzat eta 150 eurokoa herriko parte-hartzaile onenarentzat.

Parke Biosasungarrien erabilera bultzatu du udalak

BERRIZ M. Zuazubiskar Berrizko Udalak Matzagabarrenan dagoen Parke Biosasungarriak erabiltzeko programa jarri du martxan, 60 urtetik gorakoentzat. Udalaren helburua herriko jende heldua jardura fisikoa egitera animatzea izango da, profesional baten laguntzaz eta biosasungarriak diren parke hauek erabiliz.

Ikastaroa apirilaren 12tik maiatzaren 24ra egingo da, martitzen goizetan, eta parte hartu nahi duenak datorren martitzena —apirilak 5— baino lehen eman beharko du izena. Egitasmoa martitzenean bertan aurkeztuko dute, herriko Kultur Etxean.

Luhartzen erromeria, Errekakaleko jaietan

Domekara arte, ez da jai giroa faltako Errekakalen

ELORRIO Markel Onaindia Errekakaleko jaiak martxan daude. Atzo murgildu ziren ospakizunetan, eta domekara arte ez da jai giroa faltako. Pintxopote berezia egin zuten atzoko egunez, eta gaur, Luhartz taldea-

ren erromeriagaz gozatu ahalko dute. Bi saio eskainiko dituzte, gainera: 19:30etik 21:30era lehen, eta 23:00etatik 02:00etara bigarrena.

Bihar, 17:30ean, pilota partiduak jokatu dituzte, eta

19:30erako, elektrotzaranga batek lagundutako poteoa antolatu dute. Gauetz, musikari egingo diote lekua: Aterpe ondoko arkupean DJ Elepunto egongo da, Ateneoan DJ Gaua ospatuko dute, eta Gaztetxean Han eta Revolta Permanent taldeen kontzertua jarraitu ahalko da. Elorrioko musikariak osatutako taldea da Han.

Domekan, azoka

Domeka goizean azokak hartuko ditu plaza inguruak. Hain

zuzen ere, trukean eta bigarren eskuko produktuetan oinarritzen den azoka da. 10:00etan ipiniko dituzte mahaiak, eta 15:00ak arte bertan egongo dira, jaiari agurra emateko.

Gaztetxean Han eta Revolta Permanent taldeen kontzertua jarraitu ahalko da

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2016ko apirilaren 1a
14. urtea - 626. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza eta Nagore
Txintxurreta Isasi.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
Maialen Zuazubiskar
Gallastegi eta Paul
Bustindui Revuelta.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Lehen pausoa Muruetan Mercadona eta Lidl-en saltokiak zabaltzeko

Proiektua gauzatzeko tramiteak hasi ditu udalak

ABADIÑO J.G./I.E.

Joan zen astean Abadiñoako Udaleko gobernu taldeak komunikabideetara bidali zuen oharrean aipatzen zen bezala, Murueta auzoan Mercadona eta Lidl merkataritza-guneak zabaldu ahal izateko lehenengo pausoa eman zuten, eguaztean, udaletxean: saltoki handi horiek hartuko luketen lursaila birkalifikatzeko legeak egitera behartzen duen parte-hartze prozesua abiatzea onartu zuten Abadiñoako Independentiek eta EAJren ordezkariak. Kontrako botoa eman zuten EH Bilduk.

Parte-hartze prozesua legeak hala behartzen duelako burutuko dutela kritikatu zion gobernu taldeari EH Bilduko Mikel Urrutiak. Urrutiaren berbetan, martitzenean onartu bezala, "triptiko bat banatzea eta promotoreak proiektuaren aldeko propaganda zabaltzeko berbaldi bat antolatzea" ez dira herritarren parte-hartzea bultzatzeko modurik aproposenak.

Alkateak, bestalde, parte-hartze prozesua loteslea izan ez arren, herritarren gehien-goak proiektuaren kontrako jarrera agertuko balu, udalak ezingo lukeela egitasmoagaz aurrera jarraitu nabarmendu zuen: "Gehiengoaren adostasunagaz bakarrik egingo du egitasmoak aurrera, izan ere, lursailaren birkalifikazioa udalbatzak onartu beharko du momentua ailegatzen denean".

Eneko Etxebarria EAJren bozeroaleak onartu zuen, egia

dela "parte-hartze prozesu hau oinarri-oinarrizkoa dela, eta legezko betebeharra betetzera datorrela", baina alderdi politikoetako ordezkariak bultzatu dezaketela parte-hartze handiagoa. Etxebarriak azpimarratu zuen, "parte-hartze prozesu hau martxan jartzearen aldeko botoa emateak ez du esan nahi lursailaren izendapen aldaketaren alde bozkatuko dugunik horretarako unea ailegatzen denean".

Proiektua

Gobernu taldeak prentsa oharrean zabaldu duenez, Muruetako lursail horretan, Mercadonak 7.400 metro karratuko azalera hartuko luke, eta Lidlek, berriz, 7.500 metro karratuko. Saltokiak zabaltzeko data zehatzik ez dagoen arren, Mercadona 2017an zabaltzea aurreikusi dute, alkatearen arabera. Bi enpresen artean, 80 behargin kontratatzea aurreikusi dute, eta Navarra alkateak dioenez, bi enpresei herriko langileak kontratatzeko ahalegina egitea eskatu die: "Saltoki hauen irekiera positiboa da, lanpostuak sortuko baitira", dio alkateak, "eta gainera, ingurua urbanizatu geldituko da, eta udalarentzat diru-sarrerak izango dira".

Birkalifikazioaren kontra

Merkataritza-guneak eraikitzeko udalak nekazaritza-lurra birkalifikatzearen kontra, sinadura bilketa abiatu du herritar batek www.change.org webgunean. Hiru egunean 150



Mercadonak 7.400 metro karratuko azalera hartuko luke, eta 7.500ekoa Lidl-ek.



Nekazaritza-lurra merkataritzarako lur gisa izendatzeko, parte-hartze prozesu bat burutzera behartuta dago udala.

sinadurak babestu dute Hernandezen eskaria. Navarra alkateari zuzenduriko gutuna da sinatzaileek babestu dutena. Idatzi horretan salatzen duteenez, alkateak 80 lanposturen sorrera proiektuaren aldeko argumentu nagusi gisa darabilen arren, "bultzatzen dabilena prekarietatea" da. "Badirudi alkateak elkarren kontra ari direla zeinek enpresa gehiago erakarri", dio idatziak. Eskararen sinatzaileek diote, baina, ez dutela herri eredu hori gura.

Eguazteneko hiletan agurtu zuten Larruskain

San Prudentzio jaietan omenaldia egingo diote

ABADIÑO J.G./I.E.

Eguaztenean, Traña-Matienako San Prudentzio elizan burutu zuten hiletan eman zioten senitarteko eta lagunek azken agurra joan zen astean auto istripuan hil zen Jon Peli Larruskain abadiñarrari.

Palentziako Dueñas herrian hil zen Larruskain, auto istripu baten ondorioz, joan zen asteko egunean. Abadiñoako ostalari ezaguna eta lagun bilbotar bat zihoazen autoa ubide batera jausi zen, eta biak hil ziren.

Oso ezaguna zen herrian Jon Peli Larruskain 45 urteko abadiñarra. Taberna bat zeukan Traña-Matienan, eta, Abadiñoako Independentiek alderdiko zinegotzia ere izan zen.



JON PELI LARRUSKAIN

Abadiñoako Independentiek alderdiaren hastapenetan kide

izan zuen Jose Luis Navarro alkateak Jon Peli Larruskain, eta bere heriotzaren berri izan zuenean, albiste herritar eskorentzat "kolpe gogorra" izan zela azpimarratu zuen. Izan ere, alkateak nabarmendu duenez, Larruskain "oso pertsona aktiboa" izan da herrian, eta abadiñar gehienak egon izan dira inoiz bere tabernan. Azken asteotan Abadiño "zorte txarreko" dabilela ere nabarmendu zuen Abadiñoako alkateak.


Aste honetan Jose Luis Navarro alkateak aurreratu duenez, Traña-Matienako San Prudentzio jaietarako prestatuko dute Jon Peli Larruskainen agur ekitaldi herrikoia. Alkatearen berbetan, Larruskain ere partaide zen jai batzordeak antolatuko du ekitaldi hori.



FJI - MOTOR
www.fji-motor.com
comercial@fji-motor.com · Tel.: 637 500 960

| | |
|---|--|
|  <p>MERCEDES E250 CDI COUPE, RACEren ZIURTAGIRIAREKIN 2011ko martxoa. 86.400 km. Full ekipamendua. Memoriadun jesarlekuak, avantgarde automatikoa, sport jesarlekuak, elektrikoak, beroa handitzekoak, klimatizagailu automatikoa, aurrerantz eta atzerantz aparkatzeko distantzia kontrola, egonkortasun kontrola (ESP), abiadura kontrola, Xenon argiak, aleaziozko haguak, pintura metalizatua, besoa pausatzeko aurrealdean, kanpoko atzerako ispilu elektrikoak, satelite bidezko nabigazio sistema, larruzko tapizeria grisa, larruzko bolante multifuntzionala. Urtebeteko bermea eta sorospena errepidean. 29.999€</p> |  <p>BMW 525D, RACEren ZIURTAGIRIAREKIN 2010eko urria. 78.366 km. Full ekipamendua. CD. MP3. Ordenagailua. Bluetooth. Ispilu elektrikoak, beroa handitzekoak eta eraigarriak. Xenon, laino-argiak, jesarleku elektrikoak, sabai elektrikoak, klimatizagailu automatikoa, aurrerantz aparkatzeko distantzia kontrola, atzerantz aparkatzeko distantzia kontrola, abiadura kontrola (ESP), satelite bidezko nabigazio sistema. Larruzko tapizeria beixa, sabai altxagarri/korrigarria kristal elektrikoduna, larruzko bolante multifuntzionala, udarako pneumatiko-jokoa, neguko pneumatiko jokoa. Urtebeteko bermea eta sorospena errepidean. 27.499€</p> |
|---|--|

Ibilgailu berri baten bila bazabiltza, edo erabilitakoa, historikoa, bildumazkoa edo amerikarra, jarri gurekin harremanetan, esaiguzu zein den zure nahia edo beharra eta zure aurrekontua, eta guk aukerarik onenak bilatuko ditugu mundu osoan, gero zuk zuretzat egokiena aukeratu dezazun. Auto guztiek R.A.C.E.-ren berme ziurtagiria dute.



Emiliano Zuazok egin zuen lore eskaintza.



Kriskitin dantza taldea Andra Mariko ekitaldian.

Bonbek utzitako aztarnen bitartez, bonbardaketaren historia azalduko dute

Jon Ander Ramos historialariak zuzenduko ditu bisita gidatuak, asteburuan

► **M31** J.G. / M.O.

Bonbardaketaren 79. urteurrena gogora ekarri zuten atzo, Durangon. Goizean, udalak ekitaldia antolatu zuen hilerrian. Agintari politikoez erasoetan bizia galdu zutenen aldeko lore eskaintza egin zuten kaperan, Iñigo Urkullu lehendakaria buru zela. Iluntzean, hainbat herritar bildu zen Andra Mariko elizpean, bonbardaketan hildakoak gogoan hartzeko Gerediaga elkarteak eta Kriskitinek antolatutako ekitaldian. Erasoaren lekuko izan zen Emiliano Zuazok lore eskaintza egin zuen, eta Yoko Out taldeak Xabier Amurizak eta Ander Erztillak sortutako abestia jo zuen.

Hurrengo egunetarako egitarauaren baitan, errefuxiatuen inguruko mahai-ingurua egingo dute, gaur, Nerea Mujika Gerediagako presidentek, Hodei Arrausi EITBko kazetariak, Mateo Agirre Alboan elkarteak kideak eta CEAR Euskadi erakundeko Itsaso Egiak. 19:00etan da, Kurutzesantu museoa. Bes-

talde, *Bonbardaketako aztarnak* bisita gidatuak zuzenduko du Gerediaga Elkarteak, zapatuan eta domekan. Jon Ander Ramos historialariaren eskutik jasoko dute informazioa.

“Eraso anker eta krudela”

1937ko martxoaren 31n Durangok “eraso anker eta krudela” jaso zuela gogoratu zuen Aitziber Irigoras alkateak goizeko ekitaldian. “40 urteko isilune beltza etorri zen gero, diktadorearen krimena ezkutatu nahian”. Bonbardaketa gogoratu eta ikertzeko beharra plazaratu zuen, eta aurrera begirako mezua ere bai: “Gure indar guztiak batu behar ditugu bakearen eta adiskidetzaren alde”. Gaur egun gerretatik ihesi dabilzanak ere gogoan izan zituen Irigorasek, oroimenera ekarriz euskal herritar ugari bide bera hartu behar izan zutela.

Desadostasunak

Desadostasun iturri ere izan zen ekitaldia. Izan ere, hilerrian egi-

tea gogor kritikatu du Durango 1936 elkarteak. “Kaperan egiten zaie omen gerran hildako durangar guztiari, edozein zela euren ideologia: kristauei, atoei, sinesdunei zein sinesgabeiei”. Hildako guztiari omenaldia egiteagaz ere ez datoz bat. “Oroitarran, borroaren eta euren hildakoen izen-abizenak daude, nahasita”.

Gainera, udaleko alderdi bik ez dute hilerriko ekitaldian parte hartu. Alde batetik, Eider Uribe EH Bilduko zinegotziak azaldu duenez, Durango 1936 elkarteak hilerrian egiten den omenaldiaren inguruan duen iritziagaz bat egiten dute, eta horregatik ez dute inoiz parte hartu. “Ekitaldi kristau bat da”. Bonbardaketan hildakoen alde Gerediagak eta Kriskitinek arratsalderako antolatu duten ekitaldiagaz bat egiten dutela nabarmendu du Uribek. Bestalde, Fran Garate PPko zinegotziak ere ez du hilerriko ekitaldian parte hartu, oporretan Durangotik kanpo dagotelako.



Durangoko hilerriko ekitaldian Urkullu lehendakaria ere egon zen.



Alde Zaharra, bonbek suntsituta. Durangoko Udal Artxiboa.



Jon Ander Ramos
Historialaria

Pipistrelli

Saguzarra... Kurutziaga, Andramari, Ezkurdi, Geltoki, Montoi... ez gara gure inguruko kale izenez ari, jomuga izan ziren lekuez baizik. Atzoko egunez, martxoak 31, orain dela 79 urte Soriatik abiatutako hegazkin italiarrek Durangaldea izan zuten helburu. Goizean goiz Bizkaiko atea zabaltzeko prest agertu ziren. Eguzkia atzean, kanpandorrea aurrean, errepideari eta ibaia-

ri jarraituz, herria alde batetik bestera zeharkatzeko prest. Alarmak, jendetza, merkatua, meza... hegazkinak, bonbak, suntsiketa, ikara, beldurra... Dozenaka bonba, ehunka hildako.

Orain dela aste batzuk, Gogora institutuaren eskutik atzera begiratzeko beta izan genuen, Ezkurdin kokaturiko *Memoriaren plazan*. Gogorak han jasotako testigantzak, hunkigarriak benetan. Kasu

honetan, Gerediagak alboetara begira jartzen gaitu, bonbardaketan eraginez Durangoko eraikinetan oraindik ikusgai dauden zulotxo horiek ikusteko, aztarnak alegia.

Aztarnak deituriko ibilbidea egiteko aukera izango dugu asteburu honetan ere, 79 urte igaro diren honetan. Kurutzesantutik abiatuta, Komentukaletik barrena, Alde Zaharretik Ezkurdira ailegatu gara, Etxezarretatik

zehir Nevers ingurura heltzeko. Kurutzea, komentuak, etxeak, basilika, frontoia, ospitalea eta kartzela.

Baina, bonbardaketa eta gerraren krudeltasuna ez zituen bakarrik Durangok pairatu, inguruko herriek ere euren aztarnak dituzte. Berrizko alkatearen fusilamendua, egun bereko Elorrioko bonbardaketa, Otxandioko lehen kolpea, Saibi “mendi odoltsua” edota Mañariko erresistentzia.

Hilerriko hobi komunetan 84 lagun lurperatu zituzten, eta aitortzarik jaso barik segitzen dute

Bonbardaketaren eraginez eta eraso gehiagoren beldurrez, bi hobi komun egin eta 84 lagun bertan lurperatzea erabaki zuten

M31 Markel Onaindia

Durango. 1937ko martxoaren 31. Goizeko 08:30ak. Mola jeneral faxistaren aginduz, Italiar Aviazione Legionariako hegazkinak Kurutziaga kaletik sartu, eta Alde Zaharra gupidarik barik bonbardatzen hasi ziren. Jende ugari zegoen kalean, Andra Mariko elizpean merkatu eguna zen eta. Gainera, mezan ere eliztar asko zeuden. Zerutik infernua zetorren. Bonbek mina, kaltea eta izua eragin zituzten. Eraso gehiagoren beldurrez, hildakoak ahalik eta arinen altxatu eta hilerrira eramaten hasi ziren. Batzuk familiako panteoietan sartu zituzten, eta beste 84, bi hobi komunetan. Hobiak hantxe daude gaur egun ere, omenezko ikur barik oraindik.

Hamarkadetan zehar egondako informazio faltagatik bereiztu izan da Durangoko bonbardaketa. Informazio hori lortu eta argitaratzeko lan handia egin du Gerediaga elkarteak, eta Jon Irazabal ikerlariak eraman du lema. Hobien gaia aztertzeko asmoz, Irazabalegaz batera hilerrira bildu da ANBOTO. Sarreratik gertu dago hobien eremua; atetik sartu, beherantz metro batzuk egin eta ezkerretara.

Hobiak egitearen ideia momentu larri hartako berehalako neurri bat izan zela azaldu du Irazabalek: “Hildako piloa zegoen, eta ez zekiten non zeuden etsaiak. Zulo bi egin eta bertan sartu zituzten hildakoak, beste edozein gerratan lez”. Iragarpena asmatu zuten: arratsaldean bertan, berriro bonbardatu zuten Durango, eta hilerrirantz zihoan jendea metrailatu ere bai. Apirilaren 2an eta 4an jarraitu zuten erasoek, eta amaierako balantzea ikaragarria izan zen: 336 pertsona hil ziren.

Lurperatzaileak esana

Elkarren ondoan daude hobiak. Irabazabalen berbetan, orduko lurperatzaile izan zenak esanda dakite zein den eremua. Lur gainean, erabili bako espazio bat igartzen da, baina ez dago bestelako argibiderik. Batallón Otxandianoko hildako batzuk ere badaude bertan, eta euren omenezko plaka bat egon zen denbora batez, norbaitek kendu arte. Gaur egun, plaka horren ordezkotzat kaperako momentuaren alboan dago.

Leizaola lehendakariaren sasoiko Eusko Jaurlearitzak



Jon Irazabal, hilerriko hobiak dauden lekuan, ANBOTOko kazetariarekin. Lehior Elorriaga

erasoen ondorioz Durangoko hilerrian lurperatutakoen zerrenda bat publikatu zuen, eta han ageri dira bi hobietan dauden 84 pertsonen erreferentziak. Batzuen kasuan izenak datoz, beste batzuenetan miliziano zenbakiak, eta zenbait identifikatu ezinik ere ageri dira.

“Duintasuna eman”

Hobietan lurperatuta daudenek errekonozimendua behar dutela uste du Irazabalek: “Duintasuna eman beharko litzaieke,

Sarreratik gertu dago eremua; atetik sartu, beherantz metro batzuk egin eta ezkerretara

tasuna eman beharko litzaieke, hilari edo oroigarri komunitario bat gainean sortuta”. Hala ere, ikerlaria ez da lurra arakatzeko hastearen aldekoa, besteak beste, zati baten gainean hilobi berriak egin direla uste duelako: “Topatzen hasiz gero, baliteke beste hobi batzuen azpian egotea”. Bere iritziz, “udalak ez luke espazio hori hilobi gehiago sortzeko erabili beharko”.

Gobernuen erantzukizunaz Bonbardaketaren biktima izan zirenen errekonozimenduaz aparte, erasoaren egileen ardurara ere mahai gainera atera izan da azkenaldian. 2012an, Durango 1936 elkartearen mozio baten

bidez, bonbardaketaren erantzukizuna onartu eta barkamena eskatzea exijitu zien udalak Espainia eta Italiako gobernuei, Alemaniak Gernikagaz aitortza egin baitzuen. Iaz ere gai bera irten zen udalean, eta, momentuz, jaso duten erantzun bakarra Italiako kontsularena izan da: ez dela bere eskumena eta enbaxadara igorriko duela. Bestalde, Bartzelonako Udalak lez, egileen aurka kereila bat jartzeko proposamena egin zuen EH Bilduk, baina, momentuz, ez dira adostasunera heldu udalean.

Irazabalen iritziz, italiarrek eta alemaniarrek –bonba batzuk eurenak ziren– “egindakoa aitortu eta barkamena eskatzea ondo egongo litzateke”. Baina ardura handiagoa ematen dio Espainiari, eta kritikatu du armadaren sektore batzuek “oso harro” azaltzen dutela egileen oinordekoak direla. “Espainiar Gobernuak, armadaren agintari lez, Durangon zerbait egiteko daukala uste dut”, esan du Irazabalek.

Kontrara, Italiako enbaxadan omenaldia egin zieten bonbardaketaren egileei, eta udalak publikoki salatu zuen.

Argitara atera

Isildutako informazioa eta errekonozimendua argitara atertzeke lanak aurrera jarraituko du. Sakonago ikertzeko dago, adibidez, inguruko herrietan edukitako eragina. Elorrion, hamar lagun hil zirela jaso izan da.



Durangoko Udal Artxiboan dago Ehorzketen Liburua.

Ehorzketen Liburuan falta diren orrien misterioa

Orain arte frankistei egotzi zaie desagerketa

Gerra Zibila irabazi zutenek Durangoko bonbardaketa ukatu eta isilarazteko ahaleginak egin zituzten. Adibidez, egun horietan hildako inor ere ez zuten erregistratu epaitegiko liburuetan. Gainera, ospitaleko dokumentazioa desagertu egin zen, eta Hilerriko Ehorzketen Liburuan ere egun horretako orriak falta dira. Kasu horri lotuta, luzaroan, frankistei egotzi izan zaie orriak kendu izana. Baina, ez da datu fidagarriarik egon, eta misterioak bizirik dirau.

Hori gutxi ez, eta misterioa handitzen duen ikuspegi berri

bat plazaratu du Jon Irazabalek: “Beti esan izan dugu orriak frankistek kendu zituztela bonbardaketa ukatzeko, baina ikusita, gero, pertsona batek dokumentu horien transkripzio bat ekarri zuela, baliteke Jaurlearitzak gorde izana, gero nazioarteko salaketa egin ahal izateko. Momentu honetan ez naiz ausartzen esatera nork kendu zituen”.

Leizaolaren Jaurlearitzak duela hiru hamarkada argitaratu zuen orrietan agertzen zirenen zerrenda, eta horri esker dakigu 84 lagun hobi komunetan daudela.

Jimi Jiménez | Aranzadiko kidea, arkeologoa eta ikerlaria. Durango, 1936 elkarteko kidea.

“Ez dugu sekula Durangoko hilerriko hobi komunak ikertzeko eskaerarik jaso”

Aranzadi zientzia elkarteak Gerrate Zibilarekin lotutako Durangaldeko hainbat hobi ikertu ditu azken urteotan

► **M31** Jone Guenetxea

Gerra Zibileko hainbat gertaeraren lekuko diren gorpuek lurpean jarraitzen dute oraindik. Jimi Jiménez, Aranzadiko kidea eta arkeologia forentsean espezializatua, Durangaldeko aurkikuntza gehiengan aritu da lanean.

Aranzadik Durangoko hilerriko hobi komunak ikertzeko, zer egin beharko litzateke? Aranzadik ikerketa bat abian jartzeko, eskaeraren bat jaso beharko luke. Ez dugu sekula horrelako eskaerarik jaso, ez partikularren aldetik, ezta instituzio publikoen aldetik ere. Hala ere, leihoak zabalik jarraitzen du. Gogoratu beharra dago Eusko Jaurlaritzaren eta Aranzadiren artean hitzarmena sinatu zela, 2003an. Lehendakariak egindako deklarazio baten bidez, edozein herritarri aitortzen zaio desagertutako pertsona baten edo enterramenduen lokalizazioen inguruko informazioa emateko aukera. Era berean, Gerra Zibilaren edo frankismoaren ondorioz desagertu edo hildakoen inguruko ikerketa eskatu daiteke.

Nola liteke, hilerri batean bi hobi komun egon litezkeela ziurtatzen duten hainbeste zantzarekin, orain arte ikerketarik ez egin izana?
Arraroa da, bai. Testuingurua kontuan hartu behar dela uste dut. Politikoki zonalde kontserbadorea izan da. Era berean, Durangoko bonbardaketa, urte askoan, errekonozimendu ofizialik gabe egon dela ere kontuan hartu behar dugu. Diktadura sasoian, bonbardaketa propagandarako erabili zen, eta trantsizioan ahots asko isilarazi egin ziren.

Otxandioko bonbardaketan antzeko zerbaite gertatu zen?
Otxandioko bonbardaketaren biktimarik gehienak umeak eta emakumeak izan ziren. Gerrako lehenengo egunetan gertatu zen, eta gehienak otxandiarrak ziren. Hala ere, identifikatu ahal izan zituztenak familiarreko hobietan lurperatu zituzten, eta gainerakoak hobi komun batean. Han ere ez da sekula ikertu.



Udalak bonbardaketako biktimei omenaldia egiten dien hilerrian, ikertu ez diren hobi komun bi egon ahal izatea bixia da.
Hilerrian, biktimen omenez plaka eta oroigarri bat dago, baina besterik ez. Orain arte, inork ez du galdetu non ote dauden identifikatu gabekoak, beraien senitartekoei entregatu ezin izan zaizkien biktimen gorpuek.

Durangaldean, beste hobi komun batzuk ere egon daitezke?
Saibigainen, arrasto batzuk aurkitu zituztela-eta, Aranzadin salaketa jarri zuten. Baina, ez dugu informatzailerik izan, leku zehatzen bat markatu du-

“**Elorrion ere badaude soldadu batzuen lokalizazio batzuk**”

tenak. Mendia bera memoria lekua da, berez. Bizkargi edo Solluberen antzera. Larrabetzun ere, borrokalarrien arrastoak agertzen ari direla ikusten ari gara. Ziurrenik, Bilboren kontrako ofentsibaren azken egunetan hildakoak dira.

Zornotzan, gudari baten gorpuzkiak lurpetik atera dituzue.
Identifikazio zerbaki bat zue- nez jakin ahal izan genuen gipuzkoarra zela, eta bere familia aurkitu ahal izan genuen. Ganzabal mendian izan zen, Euban gora. Eubaren inguruan ere hainbat abisu jaso ditugun arren, ez ditugu gehiago aurkitu.

Borrokalarri hauek nork lurperatzen zituen?
Kasu askotan, inguruko baserriarrak izaten ziren. Kontuan izan, maiatzaren amaiera, ekainaren hasiera zela. Tenperaturak igotzen ari ziren. Usain txarren eraginez, inguruko baserriarrak ardura hori hartzen hasi ziren. Bestalde, orduko agintariek baserriar asko

gorpuak hilobiratzerara behartu zituzten.

Durangaldetik kanpo, non egin duzue azterketarik gehien?
Markinan, Elgoibarren eta Elgetan, gerrako frontearrekin lotuta. Zigoitian, Azkoitian, Lemoan, Larrabetzun edo Galdamesen ere egin ditugu ikerketak. Elorrion ere badaude soldaduen lokalizazio batzuk. Obraren bat egingo balitz, urgeniaz egingo litzateke, baina eskaerarik ez izatera, ez gara horretara heldu. Informazioa jasotzen dugu, eta Eusko Jaurlaritzaren mapan kokatzen ditugu. Kasu askotan, ikertzen jarraitzeko prozesua udalek sustatzen dute.

Durangaldeko beste gorpuzkiarik aurkitu duzue?
Mateo Markoida Arrazolako gizon bat bilatzen jarraitzen dugu, Arrietan, Solluberen magalean. Pertsona horren bila joan ginen bere arreba oraindik bizi zelako. Lurperatu zuenak gudariaren izena ezagutu zuen, aldean zeraman identifikazioa-

gatik. Beraz, lana hasterakoan, bagenekien noren bila genbiltzan. Baina, paraje osoa aldatuta dago orain, eta ezin izan ditugu bere gorpuzkiak aurkitu.

Durangaldean, hobi komun gehiago egon daitezke?
Aranzadin, Durangaldetik ez da abisurik izan. Beraz, ez da askorik ikertu. Gerra amaituta, herrietara sartzean tropa frankistek eragindako errepresioaren ondorioz, Durangon hobi komunak egon behar dira. Tropek helburu argia izaten zuten herrietara sartzen zirenean: arerioa bilatu eta hiltzea. Tropek sartzerakoan, Gipuzkoan, esate baterako, errepresioa berehalakoa izan zen. Bizkaian beranduago sartu ziren arren, jende askok ez zuen alde egin, ez zutelako ezer egin eta ez zutelako ihes egiteko arrazoirik. Hala ere, errepresioaren biktimak izan ziren. Gertaera horiek ez daude aztertuta. Horrek ez du esan gura ez denik existitzen. Seguru asko, ikertzen hasiz gero, datu gehiago azaleratuko lirateke.

Durungaldean 6 hobi komun lokalizatu dituzte, momentuz

Jaurlaritzak eta Aranzadik 80 hobi komun identifikatu dituzte 2003tik hona

M31 Markel Onaindia

Eusko Jaurlaritzak eta Aranzadi zientzia elkarteak Gerra Zibilean fusilatu eta desagertutako pertsonen inguruko ikerketa garatu dute 2003az geroztik. Guztira, 80 hobi komun identifikatu dituzte Bizkaia, Araba eta Gipuzkoan, eta horietatik 6 Durungaldekoak dira, Durangoko hilerrikoa kontuan hartu barik. Azken urteetan, horrela, hobietan lurperatutako memoria berreskuratzen ari dira.

Hobi gehiago


2020rako, identifikatutako hobi guztiak ikertuta egotea aurreikusitu dute arduradunek. Baina, Paco Etxeberria Aranzadi elkartearen presidentea eta ikerlari ezagunak azaldu du 2020ra bitartean hobi gehiago topatuko dituztela. Izan ere, aurkikuntzak ematen diren aldiro, leku-kotza berriak agertzen dira.

Fusilatuak eta hildakoak

Gainera, kontuan eduki behar

da hobi kopurua askoz handiagoa izan daitekeela. Etxeberriak emandako datuen arabera, Gerra Zibilean frankistek 2.352 errepublikazale fusilatu zituzten, eta 764 frankista errepublikazaleek. Horretaz aparte, beste 6.300 errepublikazale eta 5.700 frankista hil ziren.

Horregatik, hobi asko eta asko egongo dira itzalean, ahanztuta, herrietan eta borroka fronte izan ziren mendietan sakabanatuta.



1 ZORNOTZA

Gantzabal mendia



Gantzabal mendiko gailurraren ondoko lubakietako batean dago hobia, Gernikagaz muga egiten duen eremuan. 2008an gorpuzkiak agertu zirela abisu eman zuen herritar batek, eta ondoren, 71.228 zenbakidun txapa bat ere bai. Dragones EBL batailoiko miliziano batena zen.

Aranzadikoek gorpuzkiak ateratzeko lana egin zuten, miliziano haren bilobak aurrean zeudela. Hezurak berreskuratu zituzten, baina egoera txarrean kontserbatu zirenez, ez dute uste genetikoki identifikatu daitekeenik. Leku berean gorpu gehiago egotea ere posible ikusten dute ikerlariak.

4 MAÑARIA

Saibigain mendia



2004an, herritar batek hainbat hezur-hondar topatu zituen ustekabean Saibigain mendian, eta Aranzadiren esku utzi zituen. Gerra Zibilaren sasoiaren borroka ugariaren kokagune izan zen Saibigain.

Topatutako hondarrak, ikerlariak azaldu dutenaren arabera, oso hondatu daude urtetako meteorologiaren eraginez. Izan ere, herritarrek partzialki lurperatuta aurkitu zituen hondarrak. Horrez gainera, besteak beste, larruzko bota bat ere topatu zuten inguru horretan.

Ez dute gorpuak lurpetik ateratzeko lanik egin.

2 ZORNOTZA

Hilerria



Zornotzako hilerriaren hilerria hilerria, gune erresebatu batean eta gurutzategaz seinalatua dagoena. 50 metro karratu inguruko azalera dauka hilerria.

Udaletxean gordetako dokumentuen eta parrokia-liburuen arabera, hilerriaren hainbat gorpu lurperatu zituzten. Besteak beste, Bizkargiko eta Lemoa-txako fronteetatik hilda zetozen gudari eta milizianoen gorpuei lur emateko sortu zuten hobia, jasotako testigantzen arabera.

Aranzadik 2013an egin zuen ikerketa txostena. Ez da lanik egin gorpuak ateratzeko asmoz.

5 ELORRIO

Santa Luzia mendia



Elorrioko Santa Luzia mendiko gailurraren ondoko hobia, lepo txiki batean dago hobi komuna. Goikoetxe baserriatik igotzen den bideak eta Kanpazarretik Besaide mendira doanak bat egiten duten eremuan.

Herritar batek Aranzadiri emandako informazioaren arabera, Euzkadiko Gudarosteko ofizial bat eta soldadu bat fusilatu eta lurperatu zituzten bertan, 1937ko apirilean frankistek atxilotu ondoren.

Ez dute gorpuak lurpetik ateratzeko lanik egin. Baso jarduera izan da bertan, baina ez dute uste hobian eragina izan duenik.

3 ZORNOTZA

Euba auzoa



Euba auzoko Palacios baserriaren ondoko hobia, eta gorpu bakarrekoa dela diote ikerlariak. Baserrikoak eurak izan ziren hobiaren inguruko abisua eman zutenak, 2012an. Badirudi inguru horretan 1937ko maiatzean izandako borroken ondoriozkoa dela, altxamendua burutu zutenek Bilbo hartzeko saiakeran gertatutakoak, hain zuzen ere.

Aranzadikoen ustez, borrokalari nafar baten gorpua izan ahal da inguru horretakoa, baina ez dakite zein bandotakoa.

Momentuz, ez dute gorpua ateratzeko beharrik aurrera eramanez.

6 OTXANDIO

Hilerria



2004an egon ziren Aranzadikoak Otxandio hilerriaren hilerria. Herritar batek bere aita bertako hobi batean lurperatuta zegoela uste zuen, eta ikerlariarekin hartu-emanetan ipini zen. Hilerriko lurperatzaileak hobia bazegoela konfirmatu ziren, baina 60ko hamarkadan gainean banakako beste lau edo bost hilobi egin zirela ere bai.

Gero, 1936ko uztailearen 22ko bonbardaketaren lekuko batekin berba egin zuten ikerlariak, eta eraso hartako hainbat biktima hobian lurperatu zirela berretsi ziren. Hilerriaren erdigunean dago eremua, eta ez dute gorpuak ateratzeko lanik egin.

Mañariko udalaren zor ekonomikoa ia erdira bajatu dute azkeneko bost urteetan

Udalaren zor ekonomikoa 770.000 eurokoa zen 2011n, eta bost urteren ostean, 420.000 eurokoa da



Udaleko osoko bilkura, urtarrilean burututako aurreko batzar batean.

MAÑARIA Markel Onaindia 420.000 euroko zor ekonomikoa dauka Mañariko Udalak bankuekin. Ez da kopuru txikia,

baina garapena ikusita, emaitza baikorra dela esan daiteke. Izan ere, 2011tik hona, zorra ia erdira bajatu dute EH Bilduren gober-

nupean. Endika Jaio alkateak azaldu duenez, zorra 770.000 eurokoa zen orain bost urte. “Amortizazioak arindu ditugu,

eta urtero superabitagaz ibili gara”, esan du Jaio.

Zalloventako dirua

Datu ekonomikoekin jarraituta, udal soberakina 671.000 eurora handitu da. Zalloventa harro-

Zorra ordaintzeko, urtean 45.000 euro bideratzen dituzte, eta beste dozena bat urteko epea dute

bikoez 336.000 euro ordaindu dizkiote tasetan udalari, berreskurapen lanetan bideak erabil-tzeagatik. Egunean 100 joan-e-torri egiten dituzte kamioiek, Markomin Goikoa harrobiko lur soberakina hartu eta Zallo-venta betetzeko.

Jaiok adierazi du harrobitik etorritako diru hori ez dutela,

oraingoz, zorra kitatzeko erabili-ko: “Diru sarrera horiek herri-tarren ongizatean inbertituko ditugu”. Zorra ordaintzeko, urtean 45.000 euro bideratzen di-tuzte, eta beste dozena bat urte-ko epea dute oraindik. Gainera, gogoratu du Aldundiko Udalku-txara 40.000 euro bueltatu behar izan dituztela, eta udalarentzat “kolpe gogorra” izan dela.

Aurrekontua, aurrera

Egoera ekonomiko horregaz, 2016rako udal aurrekontua onartu dute udalean. 687.000 euro edukiko dituzte. Besteak beste, plazako kioskoa jolasgune bihurtzeko 10.000 euro erabili-ko dituzte, Plan Orokorraren idazketarako 21.000, Biomasa bidezko energia sistemaren az-terketarako 21.000, eta bideak konpontzeko 5.000.

EAJ abstenitu egin zen bozketan. Julen Uribelarreak dioenez, Plan Orokorraren aurrekusten diren etxebizitzak pisuak dira, eta “dentsitate ba-xuko etxeentzat eremu bat bila-tu beharko litzateke” bere ustez. Gainera, Biomasa proiekturako iaz ere 11.000 euro erabili zirela dio, baina egitasmoa “gauzatu barik” dagoela.

Kalean barandak ipiniko dituzte, errazago eta seguruago ibiltzeko

Ur depositoak konpontzea da 2016ko aurrekontuko inbertsio handiena

GARAI M.O.

Garaiko Udalak onartu du 2016rako aurrekontua. Joan zen astean eginiko osoko bilkuran adostasunera heldu ziren gober-nuan dagoen Herriko Taldea eta oposizioeko EAJ. 431.000 euroko aurrekontua edukiko dute aur-ten garaitarrek, herriko gastu eta inbertsioak aurrera erama-teko. Inbertsio handiena San Migel eta Trumoitteko ur depo-sitoak konpontzeko egingo dute

(50.000 euro inguru), hori izan baita udalaren lehentasuna. eta beste 10.000 euro herrigunean barandak ipintzeko erabiliko dituzte. Horrela, modu errazago eta seguruagoan ibiltzeko auke-ra edukiko dute herritarrek.

Udal ordezkariak azaldu du-tenez, hainbat lekutan ipiniko dira barandak. Adibidez, Eli-zabarrira joateko aldapan edo Herriko Tabernaren atzeko es-kaileretan. Gainera, San Mige-

leko 16. atari inguruan dagoen bidegurutzean baranda berri bat ezarriko dute, oraingoa ego-kia ez dela iritzita.

Bestalde, pilotalekuaren al-boa estaltzea aztertzen ari direla agertu da zenbait hedabidetan, baina udalak argitu du, 2016an behintzat, ezingo dutela hori egin. Izan ere, 2015ean horreta-rako diru-laguntza jaso zuten, eta urte bi pasatu arte ezingo dute laguntza gehiagorik jaso.



Garaiko herrigunean barandak ipiniko dituzte, irisgarritasuna hobetzeko.

Diru-laguntza aurreratuko diete gehien behar duten gurasoei

ZALDIBAR

Itsaso Esteban Lehen seme-alabaren jaiotzak edo adopzioak ekarritako gas-tuei aurre egiten laguntzeko udalak eskaintzen duen diru-laguntzaren araudian aldake-ta bat egitea erabaki dute EH Bilduk, EAJk eta PSEk, aho ba-tez. Aldaketa horren arabera, eta gizarte laguntzaileak ho-rrela zehazten duen kasuetan, zailtasun ekonomiko handie-nak bizi dituzten herritarren kasuan, diru-laguntza aurrera-tuko du Zaldibarko Udalak.

Orain arte, herriko dende-tan jaioberrientzat erositako produktuen gastuaren zenba-tekoa bueltatu die udalak eska-tzaileei, diru-laguntza horren bidez. Arantza Baigorri alka-teak azaldu duenez, “gastua egin ostean, fakturak aurkeztu behar dituzte, eta hain justu ere, erosteko ahalmenik ez du-tenak, beharizan handiena dutenak, geratu izan dira inoiz udalaren babesetik kanpo”. Familia horiek ere, gainontze-koek bezala, euren errentaren arabera, 400, 500 edo 600 euro-ko diru-laguntza jasoko dutela bermatu gura du Udalak.

Biosasungarriak diren parkeen programak 25 lagun batu ditu

IURRETA

A. Basauri Biosasungarriak diren par-keen erabilera sustatzeko egi-tasmoa ipiniko dute martxan, hil honetan bertan, Iurretan. Jarduera fisikoa sustatu gu-rra duen ekimena 60 urtetik gorakoei zuzenduta dago, eta, Ertzilla industrialdean da-goen parkean garatuko da. 25 lagunek eman dute izena parte hartzeko. Apirilaren 7an egin-go dute aurkezpena, 19:30ean, Ibarretxe kultur etxean.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Osakidetzak sustatutako egitasmo horren bitartez, aditu

Apirilaren 7an egingo dute jendaurreko aurkezpena, Ibarretxe kultur etxean, 19:30ean

batek gidatutako ordubeteko saioak egingo dituzte, apiri-lean eta maiatzean. Eguenero izango dira, 09:30etik 10:30era. Harrobia lanbide heziketako profesionalak burutuko dituzte ariketa programak.

Ika-mika udaleko langile baten inguruan EH Bilduk egindako adierazpenengatik

DURANGO J.G.

Udal langile bati erreferentzia eginez EH Bilduk otsailean bere webgunean argitaratu zuen testu batean egindako "akusazio larrien aurrean", Durangoko gobernu taldeak agerraldia egin zuen, martxoaren 18an, "langileari babesa" adierazteko. Durangoko Udaleko Zentroarteko Batzordeak, bertan ordezkariak duten ELA, LAB eta ERNE sindikatuen aldeko botoekin, "Durangoko Udalean

ordezkariak duten alderdi politiko guztiei idatzi bat bidali" diela azaldu zuten. Besteak beste, "zinegotzi edo ordezkari politikoek euren adierazpenetan ez ditzatela langileak kaltetu" eskatzen zuten idatzi horretan. Era berean, barkamen testu bat argitaratu dezan exijitu" diote EAJ eta PSEren ordezkariak EH Bilduri.

EH Bilduren erantzuna

"Irrigarria eta fariseoa da go-

bernu taldea langileen eskubi-deen aldeko borrokan gidari legez azaltzea". Horixe izan da gobernu taldearen kritiken aurrean EH Bilduren erantzuna. Gaineratu dutenez, "barkamena eskatzen diogu mindua izan den pertsonari, mozia idazterako orduan gaiak beharrezkoak zuten zehaztasuna ez erabiltzeagatik. Gainera, egindako akatsaren berri eman zigutenean, aipatutako paragrafoa moziotik ezabatu genuen".



Durangoko udal ordezkariak udalbatzarrean.

Film labur bat 24 orduan ekoizteko erronka

DURANGO J.G.

Zapaburu konpartsak 24 orduan film labur bat ekoizteko erronka proposatu du. Partaideek, bihar, 15:00etan, film laburrean landu beharreko gaia jasoko dute, Plateruenean.

Partaideek 24 ordu izango

Parte-hartzaileek domekan, 15:00etan aurkeztu beharko dituzte lanak, Plateruenean

dituzte, gehienez 8 minutuko iraupena duen film laburra grabatu eta muntatzeko. Domekan, 15:00tan aurkeztu beharko dute, Plateruenean. Lana pendrive edo memoria batean ekarri beharko dute, MPEG edo AVI formatuan. Lehiaketari amaiera emateko, filmaren proiektzioa eta sari banaketa egingo dira, Antzokian bertan. Zapingen izena emateko azken eguna apirilaren 1a izango da. zapaburukonpartsa@gmail.com.

Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako astea

DURANGO J.G.

Durangoko udalak ACCEM GKEarekin eta Fundación Tierra de Hombresekin elkarlanean, arrazakeriaren eta xenofobiaren kontrako astea antolatuko du, apirilaren 5etik 16ra. Pertsonen salerosketaren eta esplotazioaren inguruan sentsibilizatzea izango dute helburu. Lehenengo ekitaldia apirilaren 5ean izango da, *Atravesando fronteras* erakusketarekin, udal liburutegian. Diotenez, "etorkin zein errefuxiatuek bizitza duin bat izateko aurkitzen dituzten oztopo guztiak ezagutzeko aukera ematen du erakusketak".

Apirilaren 6an, berriz, 18:30ean, ACCEMeko Nazioarte saileko teknikaria eta salerosketako biktima izan diren pertsonen integrazioarako teknikaria den Jennifer Zuppirolik *Promesas del Este* zineforuma dinamizatuko du Elkartearen.

Ikastetxeei zuzenduta, Eskubide eta Zinema Geletan proiektuagaz Lehen Hezkuntzako 18 gela bisitatuko dituzte.

anboto.org MUGIKORREAN

Albisteak eta agenda, bizkor eta eskura.

Telefono gida osatuena: zuzenean deitzeko aukera.


Parte hartu, galderak eginez, erantzunak lortuz.

Pertsonalizatu, zure herria aukeratuz.

DESKARGATU DOAN!




Albisteak, agenda



Telefono gida



Parte hartu



Herriko informazioa jaso





**Egin zaitez
Anbotoren Lagun,
eta atera etekina
txartelari!**

Babestu proiektua urtean
30 euroren truke

Anbotoren **lagunak**

Lekuan lekuko lagunak

Anboto komunikabideak

@anboto

www.anboto.org
lagunak@anboto.org · Tel.: 946 816 558

Izena

Abizenak

Helbidea

Herria

NAN zenbakia

E-posta

Telefonoa

Kontu korrontea

ANBOTO - Bixente Kapanaga, 9 48215 IURRETA, helbidera bidali

Gaztetxoak sukaldari, jateko ohitura sanoak erakusteko

Arrazolako Erlaunpe elkarteak 12 gaztetxoren sukalde bihurtu da asteen



Mariitzeneko menua: tigreak —bexamelagaz betetako moluskuak— eta platano-txokolate irabiatua. Marixurrike

ATXONDO J. Derteano
Ondo pasatuz, ikastea. Entretanimendua eta balioak uztartzea. Horixe izan dute helburu Marixurrike aisialdi elkarteak Aste Santuan lehenengoz antolatutako udalekuek. Herriko 12 gaztetxok sukaldari lanetan eman dituzte aste honetako astegun goizak, Arrazolako Erlaunpe elkarteak. Osagai denak herriko dendetan erosi dituzte, eta plateren aukeraketa ere ez da kasualitatea izan: “Jateko ohitura orekatu eta sanoak landu gura izan ditugu gaztetxoekin”, dio Arantza Rodriguez Marixurrikeko begiraleak.

Era berean, herritik irten beharrik barik, Atxondon bertan beharrezko elikagai denak erosteko aukera badagoela erakutsi diete gaztetxoei: haragia, barazkiak, fruta, arraina...

Udan telebista zuzendari
Udaberriko udalekuen digestioa egiteko astirik barik, Marixurrikek dagoeneko prest dauka eskaintza udara begira. Uztailaren 4tik 22ra egingo dituzten udalekuetan, gaztetxoen sormena elikatu gura dute. Horretarako, adin tartean banatuta, telebista edo zinema zuzendari bihurtuko di-

tuzte. Gaztetxoek —3-6 urte artean— istorio bat sortuko dute marrazkien bidez. 6-10 urte artekoak film labur bateko zuzendari izango dira: gidoia sortu, eta kameragaz grabatuko dute. Azkenik, 10-14 urtera artekoak telebista saio bat grabatuko dute, saioko protagonistak atxondarrak direla. Hiru lanak udalekuetako azken egunean estreinatuko dituzte.

Udaleku osoko prezioa 90 euro da; aste bikoa 70 euro eta astebetekoa 40 euro. Maiatzaren 27ra artekoa da izena-emateko epea, email bidez, besteak beste: marixurrike@gmail.com.

Herritarren iritzia jasoko dute hiri antolamendua lantzeko

Bost tailer tematiko antolatuko ditu udalak

ZORNOTZA J. Derteano
Datozen urteetako Zornotza-ren hazkunde zehaztuko duen Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) lantzen ari da udala, eta, bide horretan, herritarrei euren iritzia emateko bideak ireki dizkie. Galde-tegi bat eskuragarri jarri dute udaleko hainbat eraikinetan, eta gai zehatzen gaineko tailer tematikoak ere egingo dituzte apirilean eta maiatzean.

Guztira, bost tailer tematiko antolatuko dituzte. Denak Zelaieta zentroan izango dira, 19:00etan hasita. Lehenengoa apirilaren 19an egingo dute, eta ingurumen arloko gaiak landuko dituzte. Apirilaren 21eko egunean izango da bigarrena, eta etxebizitzaren gaineko iritzia jasoko dituzte orduan. Apirilaren 26ko martitzenean, ekonomia eta herriko jarduera ekonomikoak aztertuko dituzte.

Herriko ondarearen gaineko hausnarketa proposatuko du azken aurreko batzarrak, apirilaren 28an, egunean. Azkenik, maiatzaren 3an, herriko azpiegitura, zuzkidura eta ekipamenduak izango dituzte berba.

Gura duenak galde-tegi baten bitartez ere eman dezake iritzia. Galde-tegi hori udaleko bulego teknikoan eta Zelaieta zentroan

Ingurumena, etxebizitza, ekonomia, ondarea eta ekipamenduak dira tailerretako gaiak

dago eskuragarri; baita www.amorebieta-etxano.eus webgunean ere. Behin galde-tegia bete-ta, udaletxeko bulego teknikora eraman beharko da, apirilaren 29a baino lehen.



Galde-tegia bulego teknikoan eta Zelaieta zentroan dago eskuragarri.

Portugaleteko gazteek Izurtza ezagutu dute

Izurtzako Abadetxean izan dira aste honetan



Amalur taldea lehenengoz etorri da Izurtzara, Aste Santuko oporretan.

IZURTZA J. Derteano
Portugaleteko Amalur eskout taldeak Izurtza aukeratu du aurtengo Aste Santuko egonaldia egiteko. Aurretik, Iurretan eta Berrizen egonak ziren, eta aurtengoa lehenengo aldian izan dute Izurtzan. Martitzenean etorri ziren, eta gaur joango dira. Egun hauetan, herrigunea eta bere inguruak ezagutzeko aukera izan dute 8-18 urte arteko 40 bat gaztetxok. Esaterako, Untzillaitz eta Mañaria ingurutik ibili izan dira. Durangaldeko paisaia naturalek eskaintzen dituzten aukera anitzak aprobetxatzeaz gain, askotariko jokoak egin dituzte Abadetxe ondoko parkean. “Egonaldi atsegina izan da, eta oso ondo pasatu dugu”, diote Amalurreko kideek.

Brigadaren pabilioian lapurretan egin dute

MALLABIA Jone Guenetxea
Martxoaren 29an, 15:00etan, lapurretan sartu ziren Mallabiko brigadak bere materiala gordetzen duen pabilioira. Udal ordezkariak jakitera eman dutenez, esku-motosega, haize-makina eta hesiak mozteko makina lapurtu zituzten. Udalak Ertzaintzan lapurretaren inguruko salaketa jarri duela azaldu du.

Brigadaren pabilioiaz gainera, urtarrilean udalak beste lapurreta batek eragindako gastuei aurre egin behar izan

ziren. Izan ere, Mallabiko auzoetan kokatuta dauden 22 eguzki-farolako bateriak lapurtu zituzten. Mallegoian, Areition, Longan, Trabakuan, Gerean eta Beranotxikin egin zituzten lapurretak. Farola bakoitzaren kostua 500 euro ingurukoa izan

Esku-motosega, haize-makina eta hesiak mozteko makina lapurtu dituzte

zen. Lapurretak ez ziren egun berean gertatu, apurka-apurka egin zituzten. Orain, udalak eraginkortasun energetikoaren inguruko ikerketa egingo du zein neurri hartu erabakitzeko.

Frontoi pareko eremua zelan berrantolatu aztertzen dabilta

Han ibilgailuak aparkatzeak erabilera mugatzen dio, besteak beste, eskolari



Gune asfaltatua da, eta saskibaloia saski bi ere baditu gune horrek.

OTXANDIO J.Derteano Frontoi itxiaren parean bada go eremu asfaltatu bat, saskibaloia saski bi dituena. Gertu dagoen eskolak gune hori erabiltzeko eskumena du eskola orduetan, eta arratsaldetan ere gazteak joan ohi dira saskibaloian aritzera. Baina, sarritan, kasu batean zein bestean, ezin dituzte erabili ibilgailuak daudelako bertan. Aparkaleku moduan erabiltzen dute. Zer erabilpen izan behar luke gune horrek? Eta, esaterako, aisialdi gune lez egokitu behar bada, zer egin bertan? Galdera horiei erantzuna bilatu guran hainbat bilera bideratu dituzte Herri-Olako Hezi taldeak.

Eremu horretako erabiltzai-

le nagusienekin hainbat bilera egin dira. Guraso elkarteak, haurreskolako gurasoak, nerabeak, haurrak, eskolako irakasleak eta jantokiko langileak batu izan dira gaiaren inguruan zuten iritzia plazaratzeko. Prozesua oraindik martxan dago.

Eskolako zuzendari Iñigo Ramosek dio eskolan “aspaldiko urteetan hainbat bider” plazaratu izan den gaia dela. Gune hori ez dago eskola barruko esparruan, baina udalarekin hitzarmena daukate eskola orduetan berau erabiltzeko, jolas-orduan zein heziketa fisiko-klaseetan. Baina, batzuetan, gune hori erabiltzeko oztopoak dituzte, ibilgailuak aparkatuta daudelako: osasun zentrorra doa-

zenak, herri kanpotik egunpasa egitera etorritakoen autobusak... Eskola orduetan (09:00tik 16:15era) han ez aparkatzeko erabakia adostua dago Eskola Kontseiluan, baina “ez da beti errespatatzen”.

Horrez gainera, eskolarako sarrera-irteera uneetan autoz betetzen da, eta, eskolarako bidean, oinezkoen pasabide naturala denez, “sustotxo bat edo beste ere izan dugu, batez ere euria egin duen egunetan”.

Eskola orduetatik kanpora ere hainbat gazteren jolasgune naturala da saskibaloia saskien-gatik, baina ezin dute gunea erabili, frontoira edo futbol zelaira doazen batzuek bertan aparkatzen dutelako, besteak beste.

Anboto igoko dute, presoak hurreratzea eskatzeko

DURANGALDEA M. O.

Sare mugimenduak deituta, Anboto mendia igoko dute domeka honetan, presoek hurreratzea eskatu eta horiek eta euren senideek jasaten duten sakabanaketa politika salatzen. Euskal Herriko lau tontorretan egingo dute ekimena: Anboton, Gorbeian, Beriainen eta Txindokin, hain zuzen ere. Anbotora igotzeko hitzordua 09:30ean ipini dute, Urkiolako santutegian. Abadiñarrak 08:30ean geratuko dira, Atxarten, Urkiolara elkarrekin oinez joateko.

Anbotora igotzeko hitzordua 09:30ean ipini dute, Urkiolako santutegian

Sarek Hartu Trena deitzen den dinamika ipini du martxan, eta horren baitan kokatzen da domekako mobilizazioa. Preso politikoen alde giza eskubideen ikuspegitik jardutea da asmoa, bakea eta konponbidea ardatz hartuta. Horrela, presoek eskubideak errespetatzea eskatuko dute herririk herri joango den dinamikagaz. Etzi, mendietara eramango dute aldarria.

SEI HANKAKO MAHAIA

JULIÁN RÍOS
SQ-2D



Memoria historikorik eza

Egun hauetan, zorizaiztoko martxoaren 31 gogoratzen ari gara Durangon. Egun horretan bonbardatu zuten faxistek gure herria, 1937an. Egun seinalatuak dira hauek gure buruari galdetzeko ea behar den guztia egin dugun edo egiten dugun biktimen alde, edota “historiaren alfonbrapera bidaltzen dugun eskobaten duguna”. Memoria Historikoa Berreskuratze Elkarteek salatu egin dute Gobernuak ez duela bete beharrekoa betetzen giza eskubideen arloan. Gogoratu dute Estatu Espainiara bigarrena dela munduan, Kanbodiaren ostean, pertsona desagertuen kopuruari dagokionez. 114.226 gizon eta emakumeren gorpuzkiak daude hobi komunetan. Hobi batzuetan, milatik gora ere bai, identifikatu gabekoak eta senideek duintasunez ehortzi gabekoak.

Estatu Espainiarrak berretsi egin ditu desagertuen behartuei buruz NBERen Batzordean planteatutako ebazpen eta hitzarmen guztiak, baina, hala ere, oraindik ez daukagu gobernu bat biktima hauen giza eskubide urratuekin salbuespenik gabe konprometitzen dena.

Esan beharra dago ere, Memoriaren aldeko Elkarteak herrialdeen osoko laguntza biltzen ari direla Argentinaren kereilaren aurrean (María Servine de Cubriak darama aurrera).

Egun hauetan, galdera egin behar diogu geure buruari, keinu sinbolikoez gain, egiten ari ote garen senideen elkarrekin eskatzen digutena: Egia, justizia eta kalte-ordaina diktadura frankistaren biktimentzat.

** Erredakzioan itzulita*

DURANGALDEA ASTEON

Izen-ematea zabalik dago udalekuetarako

ABADIÑO > Hiru eta hamasei urte arteko umeentzat uztailean antolatuko dituzten udalekuekin parte hartzeko izen-ematea zabalik dago, apirilaren 20ra arte. Udalak Abadiñoko haur eta gazteei zuzenduta antolatzen ditu udalekuak, eta Traña-Matienako Errota kultur etxean zein Udal Mediatekan eman ahalko da izena.

Elikagaien manipulazio ikastaroa, Durangon

DURANGO > Apirilaren 13an, 15:00etatik 19:00etara, Pinondo Etxean burutuko dute ostalariei zuzenduriko elikagaien manipulazio ikastaroa. Parte hartu gura dutenek Dendak Bai merkatari elkartearen egoitzan eman behar dute izena. Elkarte-ko kideek 25 euroko matrikula ordaindu beharko dute, eta gainontzekoek 50ekoa.

‘Bizitza guztien balioa’ aldarrikatu zuten atzo

DURANGO > Gerretako iheslarien eta terrorismoa sufritzen dutenen alde, elkarretaratzea burutu zuen Herriaren Eskubideak, atzo, 20:00etan, Andra Mari-ko elizpean. “Giza Eskubideak hausten dituzten estatuen kontra protesta egiteko” asmoz antolatu dute mobilizazioa, *Bizitza guztiek balio bera dute* lelopean.

IRITZIA

Gutuna

Aspalditik tren bat martxan dago Euskal Herrian, preso, iheslari eta deportatuen eskubideen urraketak salatu eta beraien etxeratzearen alde ibilbidea markatzen duen trena, alegia. Oraingoan, Anboto helmuga izango duen mendi irteerarekin bat eginez trenera igotzera gonbidatu nahi zaituztegu. SARE plataformak antolatu eta mendizale askoren atxikimendua jaso duen ekimenean parte hartzeko gonbita, beraz.

Durangoko presoek eta beraien familiek pairatzen duten dispersio politikak ondorio zehatzak ditu: astero, Durangoko 12 presoek familiek eta lagunek 15.678 kilometro egin behar dituzte. Milaka kilometro, kristal potolo bat tartean 40-45 minutuko bisita bat egiteko. Honek guztiak gastu ekonomiko (2.065 euro) zein desgaste fisiko eta psikologikoak eragiten ditu, baita istripuak izateko arriskua nabarmen areagotu ere. Durangoko presoek hiru familiak istripu larriak

izan dituzte. Dispersioak adin desberdinetako pertsonen eragiten die: adinean aurrera doazen guraso zein adin txikiko seme-alabei.

Durangoko presoak den Gorka Fraile larriki gaixo dago, Badajozen, etxetik 690 kilometrotara. Mingaineko minbizia kentzeko ebakuntza egin zioten, 2015eko ekainean. Ebakuntzaren inguruan poliziaren eskutik jasandako tratu ankerrak, egoerak sortutako sufrimendua areagotu eta bere bizia arriskuan jarri zuen. Ebakuntza osteko egoera ez da ona: medikuen beharrezko frogak izateko atzerapenak, kartzelako bizi baldintzek eta elikadurak beste minbizi bat izateko arriskuan jarri dute gure herririkidea.

Mendian gora pausoa emateko gonbitarekin gatoz, mendia bera elkartasunez betetzeko.

Apirilaren 3an, 09:30ean, Urkiolako Santutegitik abiatuko gara...

Mariam Bilbatua, Durangoko Sare plataformaren izenean

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefona • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK ARGITAZ DA GUTUNIK BARRIKATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutuetan adierazitakoan eta emandako iritzien erantzukizunik.

Amaia Lejarreta | Margolaria | Durango, 1983

“Nire bizitzako ziklo bat ixteko baliatu gura dut erakusketa”

Durangoko Napozt tabernan ipini du Lejarretak ‘Pure feeling’ erakusketa



Lejarretak bere margolana bakarkako erakusketa batean ikusgai ipini duen lehenengo aldia da.

> ARTEA Itsaso Esteban
‘Pure feeling’ izenburua ipinidion erakusketari. Nondik dator izenburu hori?

Erakusketako autorretratuan agertzen naizen bezala, musika entzunez margotzen eman dituz azken hilabeteak, eta entzun nuen kantuetako baten izenburua da *Pure feeling*, Florence & The Machine-ena. Asko eragin

zidan kanta horrek: gauza asko beldurragatik egiten ez ditugula esaten du, besteak beste. Momentu hartan, heriotzari, maitasunari, familiari... buruzko gaien inguruan pentsatzen eta barrukoa koadroetan islatzen nabilen, eta kantuan bezala, sentimendua zen dena. Nire bizitzako ziklo bat ixteko baliatu gura dut erakusketa hau.

Musikak leku inportantea dauka zure bizitzan eta lanean?

Bai, oso tresna baliagarria da niretzat musika: topikoa dirudi, baina uste dut musika barik ezingo nintzatekeela bizi. Oso gustuko dut musika berriak eza gutzea, eta denetatik gustatzen zait, gainera. Letretan, kanta kontatzen duen horretan, ipintzen dut arretea gehien.

Askotariko material eta formatu lanak daude erakusketan. Oso anitza da erakusketa, sortzen ibili naizeneko sentimenduak ere askotarikoak izan direlako. Eboluzio baten isla da erakusketa. Estetikoki, lan hauetan darabiltzadan koloreek ez dute zerikusirik lehen erabiltzen nituenekin: fluor koloreak erabiltzen ditut. Marrazkera ere soilagoa da, eta akuarelak erabiltzen ditut. Lehen, ez nituen detaile handiko gauzak egiten.

Erakusketako hainbat kadrotan loreak agertzen dira...

Bai, fijazioa daukat lorekin: hain gauza arrunta izanda, kolore eta forma aldetik, plastikoki, oso ederrak iruditzen zaizkit.

Taberna batean erakusteko aukera, zelan baloratzen duzu?

Zabaldu zutenetik, Napozt oso leku atsegina iruditu zait, eta erakusketa hemen izateak asko animatu ninduen. Oso gustuko dut hemen koadroekiko sortzen den hurbiltasuna.

Umetatik margotu izan duzu?

Bai, umetatik gustatu izan zait margotzea. Durangoko Institutuan batxilergo artistikoa ikasi nuen lehenengo, eta gero, Arte Ederrak unibertsitatean, pintura espezialitatean.

Makillatzaile lanean aritu zara.

Bai, karrera amaitu, eta makillaje ikastaro batzuk egin nituen, eta irakaslea izan naiz Bilboko eskola batean. Udan,

hiru urte beteko dira farmazia batean lanean hasi nintzenetik, eta nire kabuz jarraitzen dut makillajeari loturiko lanak egiten.

Pinturak zer leku izan du urteotan zure bizitzan?

Makillaje munduan hain sartuta egon nintzen urteetan, apur bat aparte utzi nuen margotzea; makillajeagaz loturiko bozetoak edo diseinuak egiteko margotzen nuen, baina gero ez nituen ideiak gehiago garatzen.

Erakusketa honetako lanak sortzen hasi arte.

Bai, uda honetan bajaran egon naiz, bizitza birplanteatu dut geldialdi horretan, eta hortxe heldu diot berriro pinturari. Aldaketa pertsonalen ostean, pentsatzeko eta bizitzeko era aldatu ditut; nire identitatea birdefinitu dut, zelanbait, momentu zail bat igaro eta gero.

Sorkuntzak leku inportantea du pentsamolde berri horretan?

Bai, oso lotuta dago sorkuntzagaz. Urte batzuk artistikoki erdi lo egon naizela ohartu naiz, eta hori da aldatu dudana gauzetako bat. Energia guztia eman nion urte batzuetan makillajeari. Orain, gauza berriak egin eta ikasteko gogoz nago.

Zer daukazu eskuarte orain?

Buruan badarabil ikus-entzunezko lanen bat egiteko ideia, bideoa eta makillajea uztartuz. Batez ere, esperientzia berrietan inspirazioa bilatzen nabil.

> MUSIKA I.E.

Apirilaren 9an Durangoko Plateruenean eskainiko duen kontzertuaren aurretik, Doctor Deseo talde bilbotarra emanaldi akustikoan entzuteko aukera izango da, apirilaren 7an, 19:00etan, Hitz liburu-dendan.

Urtebetean kontzerturik eskaini barik egon ostean, *Igual y diferente, una mirada distinta* disko berriko hainbat kanta aurkeztuko ditu Doctor Deseok, Durangon. Apirilaren 9an Plateruenean eskainiko duten kontzerturako “aperitifia” izango da Hitzeko emanaldi akustikoa, liburu-dendako arduradunen berbetan, eta Kafe Antzokiko kontzerturako sarrerak eskuratu ahal dira bertan.

Arduradunek azpimarratu dutenez, Hitz liburu-denda izango da, gainera, Doctor Deseoren

disko berria salgai ipiniko duen Euskal Herriko lehenengo saltokia, izan ere, emanaldiaren egunean, apirilaren 7an, ekingo baitiote salmentari.

‘Igual y diferente, una mirada distinta’ disko berriko hainbat kanta joko dituzte Hitz liburu-dendan

Taldearen hamabosgarren diskoa da bederatzi kantako *Igual y diferente, una mirada distinta*, eta bi euskarritan kaleratu dute; CDa eta DVD bat biltzen dituen liburu bat prestatu dute “zaleentzat opari”: kanta berriez gain, Bilboko eta Lekeitioko zuzenekoetan grabatutako hainbat abesti biltzen ditu.

Emanaldi akustikoan aurkeztuko du Doctor Deseok disko berria, Hitzzen

Plateruenean eskainiko duten kontzertuaren aperitifia izango da Hitzekoa



Diskoaren grabazioan zentratuta egon da urtebetez Bilboko taldea, zuzenean aritu barik.

LITERATURA I.E.

Euskaltzaleen Topaguneak hamargarren urtez ipini du martxan *Irakurri, gozatu, oparitu* egitasmoa. Irakurzaletasuna bultzatzea da ekimenaren helburua, eta Euskal Herriko beste hainbat lekutan bezala, Durangaldeko lau herritan ere burutuko dute: Atxondon, Mañarian, Otxandion eta Zaldibarren.

Gaur abiatu dute ekimenaren hamargarren edizioa, eta maiatzaren 31ra bitartean, Euskal Herriko 50 herritan burutuko dute egitasmoa. Hainbat euskaltzale elkarte, liburutegi publiko eta liburu-denden elkarlanari esker antolatzen du Euskaltzaleen Topaguneak ekimen hau, eta udal, herrialde, zein nazio mailako hainbat erakunderen babesa ere jasotzen du.

'Irakurri, gozatu, oparitu' kanpaina martxan da, hamargarren urtez

Irakurzaletasuna bultzatu gura du Euskaltzaleen Topaguneak ekimenagaz

Herritarrak euskarazko liburuak irakurtzera animatu gura dituzte antolatzaileek, eta parte hartzen dutenei liburuak erosteko abantaila ekonomikoak eskaintzen dizkiete, besteak beste.

Gaur hasi da ekimenaren hamargarren edizioa, eta maiatzaren 31ra bitartean burutuko dute, 50 herritan

Kanpainaren izenak adierazten duen bezala, hiru pauso ematea proposatuko diete *Irakurri, gozatu, oparitu* ekimenaren parte-hartzaileei: liburutegi publiko batean euskarazko liburu bat eskuratu eta irakurtzea; irakurritakoan, fitxa erraz bat betetzea; eta liburuazainak emandako erosketa txekeagaz (%35eko deskontuagaz) eskuratutako liburu lagun edo senitartekoren bati oparitzea.

Aurreko edizioetan bezala, *Irakurri, gozatu eta oparitu* eki-

menaren bueltan, literaturagaz loturiko bestelako jarduerak ere antolatuko dituzte: solasaldiak egingo dituzte idazleekin, irakurketa musikatuak, edo liburu azokak, esate baterako.

Parte hartzen dutenei liburuak erosteko abantaila ekonomikoak eskainiko dizkiete

GEURE DURANGALDEA

ANTTON URIARTE
Musikaria

**Ezohikoen herrian**

Jon Maiak, orain ez denbora asko, iragarri zigun "negua joan da ta", joan zela. Udaberria hasi berritan, eta ikusirik negua ezohiko joan dela, pensatzen hasia naiz ez ote garen ezohikoen herrian bizi.

Izan ere, gu jada ez gaituzte asaldatzen albistegietako miseriek, gerrek edota (lan) istripuek. Ohitu gara, lanik hutsalena lortzeko, curriculumean karrera, masterra eta gutxienez hiru hizkuntza islatu beharraz, Lehendakariak azalpenak noizbehinka euskaraz irakurtzearekin ("jakin badakigu" lar komunikatiboa ez dela tipoa) konformatzen garenean.

Arruntak dira gurean, gimnasioko bizikleta eta zinta estatikoak izerditzera kotxez hurbiltzeko daukagun joera, edota Alde Zaharretik paseatzeko kirol arropa teknikoenez jantzi behar hori.

Autostopean jasotako hiru gazte katalanek itaundu zidaten aurrekoan, eskuzabal eta solidario ospea dugun gure herrian, ea normala den Elorriotik Durangora joateko ordu erdi luzez zain egon beharra, bost plazako kotxean gidaria bakarrik joateko ohitura horrez gain (arra-roa ez, itxuraz). Atentzioa ere eman zidan, aurrekoan, Yago gaztearen kiroltasunezko jarrerak espainiar zein gure komunikabideetan izan zuen oihartzunak, bide batez.

Gauzak honela, ohikoa behar lukeena notizia den garaiotan, eta ezohikoa errutina, onetik ere baduenez asko, ea behintzat kuadrillan "maite zaitut" esan eta musu emateko ohitura hartzen dugun.

Munduko ipuin kontalariek saioak eskainiko dituzte

Berrizen, Durangon eta Elorrioren arituko dira



Kamel Zouaoui kontalari aljeriarra da jaialdiko gonbidatuetakoa bat.

LITERATURA I.E.

Durangaldean, Berrizko Kultur Etxean, Durangoko liburutegian eta Elorrioko Arriolan eskainiko dituzte emanaldiak, Munduko Kontu Kontalariek jaialdian parte hartzera etorritako ipuin kontalariek.

Apirilaren 7an eta 8an, goizetan Elorrioko ikastetxeetan hainbat emanaldi eskaini eta gero, Durangoko Liburutegian eta Elorrioko Ateneoan izango dira ahozko literaturaren hiztorduak: May Gorostiaga eus-

kaldunaren eta Kamel Zouaoui aljeriarraren istorioak entzun ahalko dira Durangoko liburutegian, 19:00etan; eta Gorostia eta Zouaoui ezezik, Nicolas Lubo kolonbiarra, Ekuatore Gineako Bonaí Capote eta Sandra Rossi argentinarra ere arituko dira, 22:00etan, Ateneoan.

Munduko Kontalarien haikagarren jaialdia amaitzeko, bestalde, May Gorostiagaren eta Nicolas Luboren istorioek hartuko dute, apirilaren 9an, Berrizko Kultur Etxea.

Arruabarrenaren argazki etnografikoak, Museoan

Apirilaren 3ra arte egongo da erakusketa zabalik

ARGAZKIGINTZA I.E.

Martxoaren 18tik daude Jesus Mari Arruabarrenaren argazkiak, Durangoko Arte eta Historia Museoan, ikusgai. *Ckristopaganía* erakusketa da Arruabarrenak Durangoko Museoan ipini duena, eta domekara arte egongo da bertan ikusgai.

Inauterietan, jai herrikoietan, Aste Santuan, erromerietan, eta gisako beste ospakizun

tradizional batzuetan egindako argazkiak dira Arruabarrenaren bildumakoak. Duela hamabost urte inguru abiatutako proiektua da *Ckristopaganía*.

Lotsagabetasuna, espiritualtasuna edo penitentzia bezalako kontzeptuak iradokitzen dituzte bildumako argazkiek. Arruabarrenaren berbetan, "zerua eta lurra; jainkoa eta pertsonaren bizipoza" daude parez pare.



Duela 15 urte abiatu zuen Arruabarrenak 'Ckristopaganía' proiektua.

Arren ganbara eta emeen sotoa
Atx Teatroa

Apirilaren 9an, 20:00etan

Sanagustinalde, 12
Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustin KULTUR GUNEAK

PLATERUENA www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | Tel.: 946 030 300

APRILAK 2 00:00etan
LIVE & BEAT + MEGA DANCE
JAIALDIA

APRILAK 2 15:00etan AURKEZPENA
APRILAK 3 18:00etan IKUS-ENTZUNEZKOA
ZAP'ING
FILM LABUR LEHIAKETA

APRILAK 9 22:00etan
DOCTOR DESEO
KONTZERTUA

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako udaberriko faseko saioa

Berrizko Kultur Etxean
Apirilaren 10ean, 17:30ean

Anbotok bi sarrera bikoitz zozkatzen ditu parte-hartzaileen artean.
Bidali mezua zenbaki honetara:
☎ 688 635 041 (apirilaren 7a baino lehen)

Sarreraren zozketa

anboto

Asier Agirre | BAT Basque Team taldeko paratleta | Durango, 1989

“Bizitzan umila izan behar da, baina inkonformista ere bai”

BAT Basque Team-en sostenguagaz Rioko Joko Paralinpikoetara sailkatu gura du Asier Agirrek



Oraintsu, Espainiako kros txapelketa irabazi du, Santanderren.

> ATLETISMOA J.Derteano
Asier Agirre ez da erronken aurrean kokiltzen den horietakoa. Kontrara. Motibatu egiten dute, bere hobetu nahi konstante eta setati horretan. Aurtengo erronka ez da nolana hiko: irailean Rio de Janeiron izango diren Joko Paralinpikoetara — gutxitasun psikiko bat du — sailkatzen saiatzea; gainera, bere espezialitatea ez den distantzian. BAT Basque Team-en batesa izango du bide horretan.

BAT Basque Team-eko parte zara, martxoaren 22tik. Zorionak, Asier.

Eskerrik asko. Itzela da, egia esanda. Hori lortzeko mailara heltzea ezinezkoa iruditzen zitzaidan, baina lortu dut ailegatzera. Urteik urtera, gero eta gehiagora joateko gogoz lan egin dut, eta horren saria da. Urtebeterako akordioa da. Lesioetan tratamendua, ekipamendua... alderdi askotako laguntza jasoko dut, baina eskakizunak ere gogorak dira. Esaterako, entrenamenduen kontrol zorrotza daramate. Egunero apuntatu behar ditut interneten. Lanera joan eta fitxatzea lakoa izango da. Baina erronka interesgarria da, eta badakit zer egin behar dudana aurrerantzean: lehertzeraino entrenatu urtebete barru mailari eusteko.

Gogoz eta ilusioz ikusten zaitut. Bai, jakina, gogotsu nago, baina badakit buruarekin jokatu behar dena ere, oinak lurrean izanda. Egunezik egunera eta lasterketarik lasterketa: horixe izango da nire taktika.

Aurtengo helburu nagusia Rioko Jokoak dira?

Ikaragarria litzateke. Baina ez da bakarra. Portugalen maratoi erdian munduko txapelketan domina bat irabaztea ere badut helburu, esaterako. Jakina, Joko Paralinpikoak gailurraren erpina dira. Amets bat da.

Pistako 1.500 metroko proba sailkatzen saiatuko zara.

Bai, eta ez da nire espezialitatea. Ni iraupen-lasterkaria naiz. Baina Joko Paralinpikoetan aukera gutxiago daude. Ez dago iraupen-lasterketarik. Diotenez, hurrengoetarako 5.000koa sartuko dute, baina momentuz... Egoera horretara mentalizatu behar du. Orain arte korrika saio luzeak zirenak, aurrerantzean lehertzeraino izango dira. Dena emanda, eta mugak bilatuz.

Sailkatzeko denbora minimo bat behar duzu?

Bai. 1.500 metroak lau minutu barruan egiteak Jokoetarako sailkapen zuzena ematen du. Denbora horretatik gora ere

“*Jokoetarako denbora lortzeko bidean, maiatzeko asteburu bakoitza final bat izango da*”

sailkatu daiteke, baina hainbat faktoreren menpe dago. Maiztzean hainbat lasterketan parte hartuko dut, eta badakigu zer daukagun: asteburu bakoitza final bat izango da.

Iraupen-lasterkari batek zer aldatu behar du 1.500ekora egokitzeko?

1.500eko atleta batek indar gehiago behar du. Gimnasioan nabil, eta pisuak jasotzen dihardut, astean birritan edo. Elikadura ere zaindu beharra dago. Korrika estiloa moldatzea da beste alderdi bat. Pausoan zabalatasuna bilatu behar du. Pauso laburrekoa naiz, eta oinkada luzeagoak bilatu behar ditut. Esaterako, Italian oinkada luzeagoekin bost segundo irabaz nitzakeela esan zidan fisioterapeutak. Azkenean, alderdi denak landu beharra dago.

Zeure buruagaz zorrotza zara?
Ba bai, horrela da. Zorrotza, eta

batzuetan, bere burua zigortzen duen horietakoa. Beti dut egingakoa hobetu daitekeen sentsazio hori. Bizitzan umila izan behar da, baina inkonformista ere bai. Gehiago egin dezakezula sentitzen baduzu, daukazun maila hobetzea posible ikusten baduzu, zergatik ez zara saiatuko? Hori bai, gorputz eta arima ahalegindu beharra dago, ez dago beste biderik. Sekula ez da jakiten noraino heldu daitekeen.

Oraintsu, pista estaliko munduko atletismo txapelketan parte hartu duzu, Italian. Laugarren 3.000ko proban eta seigarren 1.500ekoan. Gustura?

Espero onena baino hobeto aritu nintzen. Benetako lehenengo probak izan nituen, eta distantzia bietan nire marka pertsonalak hobetzea lortu nuen. 1.500eko proban 4.18ko denbora egin nuen, eta pozik nago; estaliko pistak txikiagoak dira, peralteak daukate, eta zailagoa da, beraz. Hori bai, denbora horrek erakusten du oraindik asko hobetu beharra daukadala. Baina sentsazio onekin itzuli nintzen.

Espainiako kros txapelketa ere irabazi berri duzu Santanderren. Erritmo bizia ezarri nuen hasiera-hasieratik, eta horri eutsi ahal izan nion. Irabazten dudana bosgarren aldia izan da.

AGENDA**> FUTBOLA****HIRUGARREN MAILA (gizonak)****Durango** - Kulturala - Alaves
· Zapatuan, 17:00etan, Tabiran.**EUSKAL LIGA (emakumeak)****Elorrio** - Beasain
· Zapatuan, 15:30ean, Eleizalden.**OHOREZKO MAILA (gizonak)****Elorrio** - Gatika
· Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden.**MAILA GORENA (gizonak)****Abadiño** - Iturrigori
· Domekan, 11:30ean, Astolan.**LEHEN ERREGIONALA (gizonak)****Ezkurdi** - Mungia
· Zapatuan, 18:30ean, Arripausuetan.**Amorebieta B** - Fruiz
· Domekan, 16:00etan, Txolonen**LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)****Ezkurdi** - Derio
· Zapatuan, 19:00etan, Tabiran**BIGARREN ERREGIONALA (gizonak)****Zaldia** - Berriz
· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian.**Iurretako B** - Larramendi

· Domekan, 16:00etan, Larrakozelaietan.

> ERRUGBIA**OHOREZKO B MAILA (gizonak)****Durango** - Nissan Gaurisa - Real Oviedo
· Zapatuan, 16:30ean, Arripausuetan.**EMAKUMEEN TRIANGULARRA (emakumeak-lagunartekoa)****Durango-Urbe** - Nissan Gaurisa / Real Oviedo / Getafe
· Zapatuan, 14:30ean, Arripausuetan.**> PILOTA****BIHARKO IZARRAK TXAPELKETA****- A. Etxebarria - Martinez / Larrañaga-Lasa**
- Errandonea - O. Etxebarria / E. Labaka - Medina
· Apirilaren 7an, 21:15ean, Mallabiko pilotalekuan.**> ARETO FUTBOLA****TRAÑA-MATIENAKO FUTBITO TXAPELKETA (izen-ematea)****- Noiz:** Apirilaren 17an eta 24an kanporaketak. Finalak San Prudentzio jailetan.**- Izen-ematea:** Apirilaren 10era arte.**- Prezioa:** 15 euro talde bakoitzeko.**- Nola:** futbitomatierna@gmail.com helbide elektronikoa bidez.**- Eskatutako datuak:** Taldearen izena, partaideen izen-abizenak, kamiseta kolorea eta telefono zenbaki bat.

Movistar buru dela, Udaberri Klasikoa lehiatuko dute hilaren 10ean, Zornotzan

Iazko Zornotzako klasikoan nagusitu zen Jose Herrada irteera puntuan izango da Movistar taldeagaz



Momentuz, 13 taldek eta 126 txirrindularik konfirmatu dute parte-hartzea. M.Zuazubiskar

> TXIRRINDULARITZA J.D. Urtea joan eta urtea etorri, Zornotzako Klasikoak ez dio hutsik egiten bere ohiko hitzorduari. 62. aldiari dagokion proba apirilaren 10eko domekan egingo dute aurten. UCI Pro Tour eta Kontinental mailako 13 taldek —126

txirrindulari— konfirmatu dute oraingo parte-hartzea, baina, datozen egunotan, kopuru hori handitu egin daitekeela adierazi zuten antolatzaileek, atzo, proba aurkezteko prentsaurrekoan.

Faboritoak bereiztea ez da erraza, baina Jose Herrada eta

bere talde Movistar iazko garai-pena berritzeko gogoz etorriko dira. Gorka Izagirre ormaiztegiarra ere ekarriko du Movistarrek. Durangaldetik, Mikel Bizkarra mañariarrak parte hartuko du Euskadi Basque Country-Murias taldeagaz. Es-

tatuko lau taldeagaz batera, Portugalgo lizentzia duten hiru eta Erresuma Batuko, Errusiako, Kuwaiteko, Serbiako eta Kolonbiako bana arituko dira.

Proba 09:25ean hasiko da, Nafarroa kalean. Ibilbideari dagokionez (171 km), Muniketarako hiru igoerei eutsiko diote: behin Iurretatik, eta birritan Ibarruritik. Hiru igoerak azken 50 kilometroen barruan egingo dituzte txirrindulariek.

Gazteen probak

Ohiko moduan, lasterketa nagusiagaz batera, gazte mailako beste hiru ere antolatuko ditu Amorebieta txirrindularitza elkarteak, asteburu honetan.

Bihar, 10:00etan, Lehendakari Txapelketari —23 urtez azpikoa— dagokion proba lehiatuko dute 126 kilometrotan zehar. Domekan, 10:30ean, gazte mailako txanda izango da (86 km) eta, 16:30ean, kadeteena (42 km).

ADITUAREN TXOKOA

JUAN CARLOS PEREZ

Areto-futbola



'Pampis' eta 'futbito'

Urte batzuk badira Pampis ezagutu nuenetik. Goian bego. Mallabiaren, nire taldearen, partidu bat ikustera jaitsi zen Zaldibarrera, oraindik *futbito* delako honetan hasten genbiltzanean. Klub xume batengatik interesa erakutsi, eta laguntza eskaini zigun behar genuen edozertarako. Gaur egun *futbol 5*-a gidatzen duten zuzendariak badute, bai, zer ikasia berarengandik. Pampisek inork baino gehiago egin du gure kirolaren alde. Ikaragarri igartzen dugu bere hutsunea.

Beragaz berbetan, *futbito* klub bat ginela esatea okurrirritu zitzaidan. Garai onean! Ez zitzaion bat ere gustatu, eta esan zidan gurea ez zela kirol txiki bat, eta futbol selekzioa nazioarteko tituluak irabazten hasi zenerako, *areto futbol*-eko selekzioak urteak zeramatzala mundu mailako elitean.

Zenbat maite zuen kirol hau, eta zelako arrazoia zeukan! Baloi, ate eta joko eremu txikiagoekin jokatzeko da, eta bost jokalarigaz, baina eskaintzen den ikuskizunak ez dio futbolari bat ere inbidiarik, 11 jokalarigaz eta zelai, ate eta baloi handiagoekin jokatu ere.

Beste kontu bat. Zein da gure futbolaren izen ofiziala? Federazioan *futbol 5* legez izendatzen da, eta hedabideetan *areto-futbol* moduan.

Pampisek ematen zion izena da nire aukerarik gogokoena: areto-futbola. Horrelaxe ezagutu izan da beti.

**Erredakzioan itzulia*

Iurretako futbol zelaiaren erabilera berriz ezbaian

Iurretako Kirol Taldeak uste du baduela eskumena Gertasporti zelaiaren erabilera ez uzteko

> ARETO-FUTBOLA J.Derteano Iurretako Kirol Taldeak iragarri du Larrakozelaia futbol zelaiko “azpierreantari bakarria” den heinean, Gertasporti ez diotela azpiegitura hori erabiltzen utziko, maiatzaren 30etik aurrera. Larrakozelaia eraikita dagoen “lurzoruko jabeak Iurretako kofradiak dira”, azaldu dute klubeko webguneko ohar batean: “Beraz, azpiegiturak ez dira %100ean udalarenak. Kofradiek errentan emana diote udalari, eta udalak, aldi berean, Iurretako Kirol taldeari. Beraz, gure kluba da Larrakozelaia kudeatzen duena”.

Horiek horrela, IKT “zelaiko azpierreantari bakarria” denez, Gertasporti azpiegituren erabilera gehiago ez uztea erabaki du: “Bere sasoiari, klubak futbol eskolaren kudeaketa utzi zion moduan, orain azpiegiturak gehiago ez uzteko eskubidea du”. Erabakia maiatzaren 30etik aurrera sartuko dela indarrean azaldu dute, alde bien arteko hartuemana amaitutzat ematen dutenean. Gertaspor-

ten dabilzan umeek “Iurretako futbol eskola berrian zein oinarri-futboleantokia izango dute, nahi baldin badute”.

“Erabilera publikoa du”

Iñaki Totorikaguena alkatearen esanetan, auzi honetan Iurretako Udaleko udalbatzarra osatzen duten hiru alderdiak hiru puntutan “ados” daude. Batetik, “azpiegiturek erabilera publikoa dute, eta diru publikoagaz eginda daude”. Beraz, “Udalak bermatu behar du herriko talde edo elkarteek berdintasun baldintzetan erabiltzea azpiegitura horiek”. Horrela, “udalak bere esku dagoen dena egingo du hori horrela gertatu dadin”. Irizpide horietan bat egiten dute. Gertasport “herriko elkarte bat da, eta herriko jendea dabil bertan”, gehitu du alkateak. Beraz, “eskubide dena dute” erabiltzeko.

1996an, Kofradiek 100 urterako eman zioten errentan Iurretako udalari futbol zelaia dagoen lurzorua. Harrezkero, futbol zelaiari egin diren inbertsioak “udalak egin ditu”.

Rodriguezek eta Gorostizak lau domina Espainiakoan

> TXIRRINDULARITZA M.Z. / J.D. Pistako Espainiako txapelketetatik 4 dominarekin itzuli dira Markel Rodriguez abadiñarra eta Aroa Gorostiza elorriarra. Euskadiko Selektioarekin



Markel Rodriguez podiumean.

lehiatu dira Valentzian. Rodriguezek, pistako bere lehenengo Espainiako txapelketetan, hiru domina lortu ditu kadete mailan; puntuaketa eta taldekako jazarpenean zilarrezko domina bi kolkoratu ditu, eta bakarkako jazarpenean brontzezkoa. Gorostiza, aldiz, hirugarren gelditu da 500 metroko proban.

Bestalde, Ziortza Isasi elorriarra Mallorcan dago konzentratuta, Espainiako selekzioarekin. Txekian uztailearen 12tik 17ra jokatu diren Europako Txapelketak prestatzeko hautatu dute.

Jose Luis Romero, errekor berrien konkistatzaile

> ATLETISMOA J.D.

Adinean aurrera egiteak konkistarako lurralde berrietarako atea irekitzen dio Jose Luis Romerori (Durangaldea Running). Master mailetan gora egin ahala, ordura arteko Espainiako errekorrak haustera

ohituta dago atleta durangarra. 70 urte egin berriari, Master 70 maila estreinatu du beteranoen Espainiako txapelketan, Antequeran (Malaga). 400, 200 eta 60 metrotan urrezko domina bana irabazteaz gainera, lehenengo distantzia bietan ordura arteko

markak hautsi zituen. 400 metroko proban bereak dira, gaur egun, Espainiako errekorrak 55 urtetik aurrerako Master maila denetan. 200 metroko proban, aldiz, 60 urtetik gorako marka denak ditu.

Espainiako txapelketa berean, Romeroren taldekide Julia Bea azpitzapeladun geratu zen 60 eta 200 metroko probetan, eta Maria Rosa Loitik 200 metroetako finala jokatu zuen.

E P O C A

ERREFORMAK - SUKALDEAK
BAINUGELAK - ALTZARIAK - DEKORAZIOA



Zuk nahi duzun etxea
egiten lagunduko dizugu

Madalenoste, 7
Tel.: 946 472 012
epoca@epocasukaldeak.com
48200 DURANGO Bizkaia

· www.epocasukaldeak.com ·

jarrai gaitzazu Facebook-en!
f epoca.goro

San Juan, 5
Tel.: 943 700 216
epoca@activahogar.com
20600 EIBAR Gipuzkoa



> Berbaz

Urtza Uriarte | Arkitektoa da. Arkitektura eta iraunkortasuna doktoretza ikasketak egin ditu | **Zornotza, 1984**

“Egun ezingo ginateke tokiko baliabideekin asetu, baina horiek gehitzea lortu genezake”

Tokiko produkzioa eta kontsumoa bultzatu gura duen Iraunkor elkarteko kidea ‘Oinak lurrean’ liburuaren egileetarikoa bat ere bada



> BERBAZ Aitziber Basauri
Gizarte ekimenetik sortutakoa da Iraunkor. Tokiko ekoizpena eta kontsumoa bultzatzea dute helburu, eskariaren arabera kontsumo eredu lortzea. Horretarako, sentsibilizazioa ezinbesteko lan esparrua dela uste dute. Elkarteko kide da Urtza Alkorta zornotzarra; ‘Oinak lurrean’ liburuaren egileetarikoa bat ere bai.

Gizarte ekimenetik jaio da Iraunkor. Bai, Etxanoko Andra Mari Berri auzo elkartearen sortutako gogoetatik. Iraunkortasun edo jasangarritasunaren alorrean lan egiteko gogoia zuten elkartearen. Ni neu ere bazkide naiz, eta iraunkortasunean hezteko eta gure udalerririk horregaz lotuta nolako potentziala daukan aztertze-ko proiektu polita izan zitekeela pentsatu genuen: Zornotzak 58 kilometro ka-

rarratu ditu, eta 18.000 biztanle. Posible zela pentsatu nuen. Izan ere, komunitate bat iraunkorra izango da, behar dituen baliabideak eskura baditu. Bartzelonan landu dugu proiektua lan-talde batek.

Udalaren babes bere ere izan duzue, ezta?
Bai. Babes osoa izan dugu. Auzo elkarte batean sortutakoa udalerririk osora zabaldu da. Proiektu horren emaitza izan dira Iraunkor elkarte eta liburu ere bai. Herriar guztiei zabalduzako parte-hartze prozesua abiatu genuen, eta iraunkortasuna landu genuen. Horretan parte hartu zuten herritarrekin sortu da Iraunkor.

Eta, zein da helburua?
Tokiko ekoizpena eta kontsumoa handitzea. Egungo gizartearen ezingo ginateke tokiko baliabideekin asetu, baina, baliabide horiek gehitzea lortu genezake.

“**Ditugun baliabideak erabiltzea, gehitzen joatea da helburua**”

“**Sentsibilizazioan eragin behar dugu ekonomia zirkularra sustatzeko**”

Ditugun baliabideei ez diegu behar besteko etekina ateraten. Era abstraktuan, ura, elikagaiak, energia eta komunitatea aztertu ditugu, eta kanpoan ekoiztutako material askoren menpekoak gailuak ikusi dugu, gure lurraldeak horiek guztiak sortzeko baliabideak izan arren.

Zornotzak baliabide handiak ditu biomasa eta hidroelektrikarako, ezta?

Biomasa dagokionez, baso dezente daude, eta, ondo kudeatuta, nahiko produktu daitezkeela uste dugu. Sortu daitezkeen energia hidroelektrikoa, berriz, ez da horren handia. Baina, erreka handia dugu, eta sortu daitezke auzo batek behar duen energiaren zati bat asetzeko beste. Ditugun baliabideak erabiltzea, gehitzen joatea da helburua. Beti ere, hirigintza planeamendu kudeatu bat tarteko dela (ingurumenaren erabilera egokia, paisaia... bermatuz).

Tokiko ekonomia zirkular eta iraunkor baterako kide gehiago behar duzue?

Iraunkorren 17 bazkide gara; bederatzirik elikagai ekoizleak. Hori ez da ezer 18.000 biztanle asetzeko. Eta, udalerrian sortutako energiaren %1 baino ez da berriztagarria. Sistema guztiak funtzionatzen lan egin behar dugu, eta sentsibilizazioan eragin behar dugu ekonomia zirkularra sustatzeko. Energia, elikagaiak eta kontsumitzaileak ditugu lan ildo.

Sentsibilizazioa landuz, ekoizle kopurua gehituko da?

Bai. Gazteak hezi behar dira lehenengo; ekoizle berriak sortzeko, behetik hasi beharra dago. Neurri handian, heziketa lotuta dagoen hutsune bat dagoela uste dugu. Gainera, sistema bat sortzea behar da. Derioko erdi mailako heziketa zentroagaz lan egitea ere pentsatu dugu.

Kontsumo eredu berri bat sortu gura duzue?

Tokiko produkzioa eta hurbileko kontsumoa handitu gura ditugu, eta eskariaren arabera kontsumo eredu sustatu.

Lurjabe eta ekoizleen arteko bitartekaritza lan bat behar dela uste duzue?

Bai. Lurjabeekin askotariko akordioak lortu daitezkeela uste dugu. Lurrei etekina ateratzeko aukerak ikusten ditugu, era orektuan, beti ere, eta lurralde planeamendu bati lotuta. Lurren kokapena eta horien ezaugarriak aztertzea ezinbestekoa da —malda handiko lurrak arbolak jartzeko edo abeltzantzara bideratu daitezke, eta bailarak nekazaritzarako erabili—. Eredu organikoak da hori.

Zeri deitzen diozu eredu organikoak?

Industrializazioaren aurretik erabiltzen ziren estrategia pasiboak apur bat berrakibatzea behar dela uste dugu, eta lurrak, euren ezaugarrien arabera, gauza baterako edo besterako bideratzea.

Gazteek badute lurrik lantzeko?

Eskaria nahiko handia da, eta lurrik ez dagoela dirudi. Horren aurrean lurjabeekin lan egitea pentsatu dugu: inkesta bat lantzea, lurrekin zerbait egiteko prest legokeen zenbat jabe dagoen jakiteko.

Galdutako gizarte eredu bat berreskuratatu gura duzue?

Tarteko zerbait lortzea litzateke helburua. Funtzionatzen zuten garai bateko ereduak berreskuratzea eta gaur egungo teknologien abantailak integratzea da kontua. Eredu iraunkor bat sortzea.

Hori planteatzen duzue ‘Oinak lurrean’ liburuan?

Material fluxuen —ura, energia, elikagaiak eta komunitatea— bilakaera aztertu dugu, eredu organikotik gaur egunera. Eredu organikoan fluxu hori guztiz zirkularra zen, orekatua; hondakinak baliabide bihurtzen dira organikoak direlako. Gaur egun, berriz, lineala da. Material mineralak eta horien aldaerak erabiltzen dira, eta ingurumenak ez ditu hondakin horiek guztiz xurgatzen. Urte asko behar dira eredu linealean sortutako material piloa baliabide bilakatzeko. Liburuan, eredu lineal horretatik eredu zirkular batera nola jo aztertu dugu, eta, eredu organikoetako estrategia pasiboak berreskuratzea planteatu.

Epe laburrera ze urrats emango duzue?

Heziketa eta ezagutza tailerrak egin gura ditugu, eta biomasa eta hidroelektrika zentral txikiak bultzatu. Lur bankuak sortu gura ditugu, eta ekoiztutakoa kontsumitzeko komunitatearen gaitasuna ikertu ere bai. Hondakinen kudeaketa lantzeaz gain, konpromiso soziala duten kontsumitzaileak tokiko ekoizpenen kontsumitzaile bilakatu gura genituzke.

EDERTASUN GIDA



Amaia Salazar. Nukleo.

Modan dauden ile estiloak eta berau zaintzeko moduak

Zer eskaintzen diozue Nukleon, ideia finkorik barik datorren bezeroari?

Lehenik eta behin, bezeroagaz berba asko egin behar dela uste dugu, batez ere ezagutzen ez badugu. Ostean, koloreaz hitz egiten dugu, argitasuna eta kutsua adosteko. Gero, mozketa estiloa ere aztertzen dugu; ea labur, erdizka edo luze gustuko duen galdetzen diogu. Horren guztiaren arabera, eta bere ile, begi eta aurpegia kontuan hartuta, eskaintzen dugu zerbitzua.

Zer estilo edo moda helduko da?

Denbora behar izaten da joera berriak eta guk ikastaroetan jasotakoa merkatuan sartzeko. Orain, Kleopatra estiloko ileak eramaten dira, luzera ertainekoak. Bestalde, garondoak ile gutxigaz eramateko joera zegoen, eta orain, ile gehiagogaz eramaten hasi gara.

Nukleon zer tratamendu garatzen duzue ilea zaintzeko helburuz?

Alde batetik, keratinazko tratamenduak garatzen ditugu. Bestetik, botox eta plasma tratamenduak ere eskaintzen ditugu, oso harrera ona izaten ari direnak, hain zuzen ere.



ILE-APAINDEGIAK



ESTETIKA ZENTROAK

Ana Camarero
Edertasunerako tratamenduak eta aholkularitza

Lehen 300€ orain 120€

%60eko deskontua Presoterapia-ko 10 saio

Apirilaren 1etik apirilaren 29ra

Golenkalea, 16-1. esk. • 48200 Durango
Tel.: 946 817 380 • Mug.: 639 375 474
Zentru ez-sanitarioa

R.P.S.: 36/16



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO
Tel.: 946 813 562

ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

- DURANGO: 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 575€-tik aurrera.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- TABIRAKALEA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoa kanpora begira. Garaje itxia.
- ERROTARITUENA: atikoa. 3 logela, 2 komun, sukalde-egongela. 2 terraza handiak. Etxe osoa kanpora begira. 4 kotxerentzako garaje itxia.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, 2 komun eta egongela. Ganbara eta garajea. Berriztatua.
- FRANZISKO IBARRA: 4 logela, 2 komun, sukaldea, despentsa eta egongela balkoiarekin.
- KALEBARRIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 120.000€.
- ARTEKALE: 8 etxebizitza eraikitzen. Logela 1 eta 2koak. Trastelekuarekin. 128.000€-tik aurrera.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoa kanpora begira. Berriztatuko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

ATXONDO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoa kanpora begira. 3 balkoi. Garaje itxia.
- 3 logela, 2 komun, sukaldea esekitokiarekin eta egongela. Etxe osoa kanpora begira. Garajea eta trastelekua. Berria ematen du.
- 2 logela, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin eta egongela.

LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.

ABADIÑO

- AITA LETONA: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Trastelekua eta garajea.
- ITURRITXO: Logela bakarreko apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komuna eta esekitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

LUR SAILAK SALGAI

ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.000 m2-ko lursaila salgai. Zonalde egokia.

BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai. Informazio pertsonalizatua.

EUBA

- 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati, bakoitzean bifamiliarra eraikitzeko aukerarekin.

ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

- ABADIÑO: Gaztelua. Baserría. Arku zoragarria dauka sarreran. 20.000 m2-ko lursaila baserrí ondoan.
- BERRIZ: 1.200 m2-ko lursailean kokatutako txaleta, Abeltxe kalean. 4 logela, 3 komun, sukaldea eta egongela. Garajea.
- ATXONDO: Mariza auzoan. 15.000 m2-ko lursaila. Teilatu berria. Zonalde ikusgarria.

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO. OBRA BERRIA Estreinatzeko



- 90 m2. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun. Garajea eta ganbara. **260.000€**.

ARANDOÑO TORRE: 112m2 GUZTIZ BERRIZTATUA



- Garajearekin. Zabala, eguzkitsua. **290.000€**.

MONTEVIDEO: 94 m2 ERABILGARRI, DUELA GUTXI BERRIZTATUA



- 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. **230.000€**.

BARRENKALE: dotorea



- Guztia jarrita. 2 logela, egongela, sukaldea jarrita, komun 1, 2 balkoi eta 8 m2-ko trastelekua. **219.000€**.

SASIKOA



- 2 logela, egongela, sukaldea jarrita, komuna, balkoia, garajea itxita eta ganbara. **179.000€**.

IZURTZA



- Etxebizitza 1.377 m2-ko lursailean. 104 m2-ko bi solairu. Behelaldeko solairua, gardena. Lehenengo solairua 3 logelatan banatua, egongela, sukaldea eta komuna. Teilatu berria. **350.000€**.

www.inmoduranguesado.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AUKERA

- SAN FAUSTO. Zeharmendieta. 3 logela. Komuna. Egongela. Berogailua. Bizitzen sartzeko prest. 85.000€.
- ARAMOTZ. 3 logela. Komuna. Egongela. 100.000€.
- IZURTZA. 2 logela. Komuna. Egongela. Bizitzen sartzeko prest. 85.000€.
- IURRETA. Maspe. 2 logela. Komuna. Egongela. Eguzkitsua. Ikuspegi ezin hobek. 111.500€. Alokairuan, erosteko aukerarekin
- MATIENA. K/ Laubideta. 4 logela. Komuna. Sukaldea. Egongela. Garajea aukeran. AUKERA. MERKEAGO.
- IURRETA. 3 logela handi. Komuna. Egongela eta sukaldea. Igogailua. Berogailua. 125.000€.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- AZKEN ETXEBIZITZA. Estreinatzeko. 3 logela. 2 komun. Egongela. Sukaldea. Terraza. Trastelekua. Garajea. 159.000€.
- SASIKOA: 3 logela. Egongela handia. Sukaldea. Balkoia. Ganbara. Garajea itxita.
- TXALET. 330m2. AUKERA. 380.000€. Negoziazarria.
- ABASOLO. 84m2. DENA BERRIA. 199.000€.
- ABADIÑO. Iturritxo. 111m2. 2 logela. Sukaldea. Komuna. Egongela. Ganbara eta garajea. 215.000€.
- AMOREBIETA. 70 m2. 2 logela. Komuna. Berriztua. 160.000€.
- ATICO. 35m2ko terrazarekin. 2 logela. Komuna. Egongela. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua.
- MIKELDI. Erdi berria. 3 logela. 2 komun. Trastelekua. Garajea. 260.000€.
- ANBOTO. 3 logela. Komuna. Sukalde handia Egongela. Balkoia. Berogailua. Igogailua. Bizitzen sartzeko prest.
- S. IGNACIO. 3 logela. 2 komun. Terraza. Trastelekua. Garajea. 230.000€.
- A. EZTEGIZ. 3 logela. Komuna. Sukaldea. Egongela. Igogailua. 155.000€.
- ARKOTZA. 4 logela. 2 logela. Sukaldea. Egongela. Ganbara eta Garajea. 240.000€.
- FCO. IBARRA: 100 m2. 3 logela. 2 komun. Egongela. Ganbara eta Garajea. 246.415€.
- ASK. ETORBIDEA: 100 m2. 3 logela. 2 komun. Egongela. 2 Terraza. Ganbara eta garajea. Etxe guztia kanpora begira. EGUZKITSUA. AUKERA.
- IBAIZABAL. ERDI BERRIA. 3 logela. 2 komun. Egongela. Sukaldea. Esekitekia. Ganbara eta Garajea.
- ZALDIBAR. Iturrioz. 3 logela. Komuna. Egongela. 2 terraza. Igogailua. Berriztua. Eguzkitsua. 140.000€.
- S. IGNACIO. 3 logela. 2 komun. Egongela terraza eta guztia. Sukaldea. Esekitekia. Ganbara eta garajea. EGUZKITSUA. 246.000€.
- ZUMALAKARREGI. 65 m2. (Egokia bulegoetarako).
- ABADIÑO. Zelaieta. Erdi berria. 2 logela. Trastelekua. Garajea. 185.000€.
- ATXONDO. Etxabea 100m2-ko lorategiarekin. 2 Logela. .Egongela. Ganbara. 210.000€.
- ABADIÑO. Erdi berria. 2 logela. 2 komun. Egongela. Terraza. Trastelekua eta garajea. AUKERA

LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIUAN

- IBAIZABAL. 55 m. Guztia jarrita. Alokairua/ Salmenta.
- ERDIALDEAN. 228 m2. Salmenta. 182.400€. (saltzeko aukera Negoziazarria.)

ALOKAIRUA EROSTeko AUKERAREKIN
LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK
ALOKAIUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com

**ALOKAIUAN
ETA SALGAI DITUZUN
HIGIEZINEN BERRI
EMAN NAHI
AL DUZU?**



**Anbotok tarte hau
eskaintzen dizu**

Informazio gehiagorako:
Tel.: 946 217 902
publi@anboto.org

AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Apirilaren 2an, 22:30ean,
Elorriko Gaztetxean

HAN + Revolta Permanent

HAN Elorriko rock taldea, eta Revolta Permanent taldeko hip-hopariak entzuteko aukera eskainiko dute, bihar, Gaztetxean. Errekakale kaleko jaietarako antolatatu duten egitarauaren barruko emanaldia izango da.

Musika

:: DURANGO

APIRILAREN 7an

19:00etan, Doctor Deseo akustikoan, Hitz liburudendan.

Antzerkia

:: BERRIZ

APIRILAREN 8an

18:00etan, 'Erpurutxo', Kultur Etxean.

:: DURANGO

APIRILAREN 9an

20:00etan, 'Arren ganbara eta emeen sotoa', San Agustin kulturgunean.

:: ELORRIO

APIRILAREN 8an

17:00etan, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen 'Amaiur', Arriolan.

:: ZORNOTZA

APIRILAREN 8an

21:00etan, 'Trastornos literarios', Zornotza Aretoan.

Solasaldia

:: DURANGO

APIRILAREN 1ean

19:00etan, 'De cerca: éxodo del refugiado', Nerea Mujika, Hodei Arrausi, Mateo Agirre eta CEAR-Euskadiko ordezkari batez, Kuruzesantu Museoa.

APIRILAREN 7an

18:30ean, Tertulia Feminista: 'Ekonomia feminista egunerokoan', Pinondo etxean.

Berbaldia

:: DURANGO

APIRILAREN 5ean

18:15ean, 'La violencia de genero' berbaldia, Nagusien Etxean.

:: ZALDIBAR

APIRILAREN 3an

19:00etan, 'Sahara: lurralde okupatuaren isiltasuna apurtzen' berbaldia, Liburutegi Zaharrean.

Lehiaketa

:: BERRIZ

APIRILAREN 29ra arte

Jaietako kartel lehiaketa. Udal liburutegian aurkeztu behar dira lanak, apirilaren 29a baino lehen.

:: DURANGO

APIRILAREN 2an eta 3an

Zap'Ing film laburren lehiaketa, Plateruenean.

Zinema

:: BERRIZ

APIRILAREN 1ean (18:00etan) eta 3an (17:00etan)

Alvin y las ardillas, Kultur Etxean.

:: DURANGO

APIRILAREN 6an

18:30ean, 'Promesas del Este' filmaren inguruko zineforuma, Elkartegian, Arrazakeriaren kontrako astearen barruan.

Jaiak

:: ELORRIO

APIRILAREN 1ean

19:30ean, Luhartz, plazan.

APIRILAREN 2an

17:30ean, pilota partida.

19:30ean, poteoa eta elektrotzaranga.

22:30ean, HAN + Revolta Permanent, Gaztetxean.

23:00etan, J.J. Elepunto DJam Aterpe ondoko arkupean.

00:00etan, DJ Gaua, Ateneoan.

APIRILAREN 3an

10:00etatik 15:00etara, 3R Azoka.

Kontalaria

:: BERRIZ

APIRILAREN 9an

20:00etan, Munduko Kontu Kontalariak, Kultur Etxean.

:: DURANGO

APIRILAREN 8an

19:00etan, Munduko Kontu Kontalariak, Liburutegian.

:: ELORRIO

APIRILAREN 8an

22:00etan, Munduko Kontu Kontalariak, Ateneoan.

Erakusketa

:: DURANGO

APIRILAREN 3ra arte

Jesus Mari Arruabarrenaren 'Kristolopagania', Arte eta Historia Museoa.

APIRILEAN

Amaitz Lejarretaren 'Pure feeling', Napozt tabernan.

APIRILEKO AGENDA




| | |
|----------|--|
| 3 | IURRETA TXIRRINDULARI ELKARTEA 11:00 Bizkaiko Eskola arteko BTT. |
| 4 | IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA - Gizarte Ongizatea 18:15 Emakumeen literatur tailerrak. |
| 5 | IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA 18:30 Club de lecture "La vie devant soi". |
| 6 | IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA AZALERAKO IPUINAK 17:00 (0-18 hilabete bitarteko haurtoak) 18:00 (18-36 hilabete haurtoak) IBARRETXE KULTUR ETXEA - Kultura Saila BERBALDIAK GURASO ETA HEZITZAILAEENTZAT 18:30 Hizlaria: Juan Carlos Alonso (Psikologoa) |
| 7 | IBARRETXE KULTUR ETXEA PARKE BIOSASUNGARRIEN DINAMIZAZIO PROGRAMA 9:30 Aurkezpen hitzaldia IBARRETXE KULTUR ETXEA - Gizarte Ongizatea GURUTZE GORRIA 18:00 "Nagusien bidelagun" proiektuaren aurkezpena. Pertsona nagusiei gertufasuna eta laguntza zerbitzua. Izen-ematea: Apirilaren 7tik aurrera. |
| 8 | Kzguna 9:00 "Gmail - Correo electrónico I" ikastaroa. Izena ematea: Apirilaren 7ra arte. IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA UMEEN IPUIN KONTALARIA - Oihana Etxegibel 17:30 (3-4 urte bitartekoak) - 18:00 (5 urtetik gorakoak) IBARRETXE KULTUR ETXEA - Kultura Saila 19:30 "La boda de Betty Blue" antzerkia Glu Glu Produktioak. Sarrera dohainik. |



Apirilaren 8an, 18:00etan, Berrizen

Erpurutxo

'Erpurutxo' ipuin klasikoaren bertsioa eskainiko du Teatro Paraisok, datorren barikuan, Berrizen. Zazpi eta hamaika urte arteko umei eta euren familiei zuzenduriko obra da, Aitor Fernandino eta Peio Arnaez aktore, eta Iñaki Rikarte zuzendari dauzkana.



:: ELORRIO | ARRIOLA

Mustang

- zapatua 2: 22:00
- domeka 3: 20:00
- astelehena 4: 20:00

:: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

El pregón

- barikua 1: 20:15
- zapatua 2: 19:30/22:00
- domeka 3: 20:00
- astelehena 4: 20:15

Capitán Diente de Sable y el tesoro de la Lama Rama

- zapatua 2: 17:00
- domeka 3: 17:00

> **ESKELAK**



PEDRO MARI IZA



*Gaztañetzako harriek negar
Kukuak kuku kantari
Iluntasune gailendu zaio
Aurten udaberriari
Beti arte Pedro Mari*

Zure seme-alaben lagunak



Enri Bolaños

Familiaren saminarekin bat egiten dugu



> **BOTIKAK**

| | |
|--|--|
| BARIKUA, 1 · 09:00-09:00 | Goiria, Mari Carmen Sabino Arana 6 - Zornotza |
| Sagastizabal Askatasun etorb. 19 - Durango | 09:00-22:00 |
| Goiria, Mari Carmen Sabino Arana 6 - Zornotza | Sarasketa, Diego Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza |
| 09:00-22:00 | ASTELEHENA, 4 · 09:00-09:00 |
| Sarasketa, Diego Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza | Mugica Andra Maria 9 - Durango |
| ZAPATUA, 2 · 09:00-09:00 | Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza |
| Etxebarria Montevideo etorb. 2 - Durango | 09:00-22:00 |
| Goiria, Mari Carmen Sabino Arana 6 - Zornotza | Sarasketa, Diego Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza |
| 09:00-13:30 | MARTITZENA, 5 · 09:00-09:00 |
| Navarro Artekalea 6 - Durango | Balenciaga Ezkurdi plaza 8 - Durango |
| Sagastizabal Askatasun etorb. 19 - Durango | Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza |
| Unamunzaga Muruetatorre 2C - Durango | 09:00-22:00 |
| Balenciaga Ezkurdi plaza 8 - Durango | Sarasketa, Diego Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza |
| De Diego Intxaurren 22. - Durango | EGUAZTENA, 6 · 09:00-09:00 |
| Bazan Diaz Urribarri 5 - Durango | Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango |
| Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango | Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza |
| Irigoien Bixente Kapanaga 3 - Iurretza | 09:00-22:00 |
| Eguren, Isabel Trañabarren 15 - Abadiño | Sarasketa, Diego Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza |
| Bartolome Gabiola 2 - Berriz | EGUENA, 7 · 09:00-09:00 |
| Jaio-Olabarrieta Errekakale 6 - Elorrio | De Diego Intxaurren 22. - Durango |
| Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza | Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza |
| 09:00-22:00 | 09:00-22:00 |
| Sarasketa, Diego Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza | Sarasketa, Diego Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza |
| DOMEKA, 3 · 09:00-09:00 | |
| Navarro Artekalea 6 - Durango | |

> **ZORION AGURRAK**

Ermodo, 11
DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

f Gozatu Gozategia

Zorionak, **Kepa (624. znb.)!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



> Areitio-Galarza familiakoek martxoaren 19an egindako 1. briska txapelketako irabazleak, Eugenio, Izaro eta Mikel.



> Zorionak, **Oinatz**, zure lehen urtebetetzean. Ea urte askoz orain bezain polit jarraitzen duzun.



> Martxoaren 25ean 6 urte egin zituen **Uxuek**. Zorionak amaren eta aitaren partez



> **Andu**, ahuntzak be lagun, urte askotarako irribarre eta osasuna etxekoan partez hire lehen hamarkadan!



> Martxoaren 25ean **Lierrek** bi urte bete ditu. Zorionak etxeko guztion partez!




> Gaur 8 urte egin dozun **Ander**. Zorionak Euriren, etxekoan eta lagun danen partez.



> Martxoaren 31n, 10 urte egin zituen **Endikak**. Zorionak ama, Oroitz anaia eta Berrizko familiaren partez!



> Zorionak, **Naia**, zure 6. urtebetetzean. Musu bat danon partez.



> Zorionak, **Izei**. Ondo paseu. Mosu handi bana birramama eta etxeko guztion partez.



> Pasa dan martxoaren 30ean **Peruk** 7 urte bete zituen. Zorionak, Peru, etxeko denon partez eta belarri tirekada handi bat.



> Gure printzesak 10 urte egin zituen. Zorionak, **Maialen**, eta musu handi bat aitaxo, amatxo, Paule eta Nahiaren partez.



> Zengoitiko **Goizederrek** 8 urte beteko dauz apirilaren 3en. Zorionak danon partez!



> **Izarok** 9 urte egingo ditu apirilaren 5ean. Zorionak eta muxu handi bat denon partez.



> Zorionak, **Martin**, apirilaren 2an 7 urte, "pirata"! Maite zaitugu!



> Martxoaren 22an **Fernandak** urteak bete zituen. Zorionak familiaren partez.



> Gure amama **Blankik** martxoaren 27an urteak bete zituen. Zorionak eta mosu handi bat!



> Zorionak birramama **Rosariori**, atzo 80 urte bete zituen eta.



> **Agustinak** martxoaren 21ean urteak egin zituen. Zorionak eta mosu handi bat etxeko danon partez.

APIRILEKO SARIAK

Anbotoren lagunak

www.anboto.org
lagunak@anboto.org
Tel.: 946 816 558

SAN AGUSTIN. SARRERAK
"Zer duzu Amy?" antzezlanerako 2 sarrera. Maiatzak 5, 20:00tan.

URBASA ABENTURA. MULTIABENTURA
Multiabentura Ibilbidea Familian, 4 pertsonentzako

SALTSAN KATERIN. MENUA
Bi lagunendako aste bitarteko menua.

SAN AGUSTIN. SARRERAK
Urmeentzako "Ensueños" ikuskizunerako 2 sarrera. Maiatzak 15, 18:00tan.

HITZ LIBURU-DENDA. LIBURUA ETA CDa
Pedro Iturria Sarasibaren "Euskarari gorazarrea" liburua eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen "Amalur" CDa.

MARTXOKO IRABAZLEAK

- > **UR URDAIBAI.** Itziar Barrenetxea.
- > **HITZ LIBURU-DENDA.** Ana Ajuriaguerra Albizua.
- > **EROSKI.** Marta Ariznabarreta Unzalu.
- > **SALTSAN KATERIN.** Itxaso Egidazu Elorza.
- > **UNAMUNZAGA HORTZ-KLINIKA.** Nahikari Abaunza Inzunza.

“Afizioa ofizio daukat, eta zorionekoa naizela uste dut”

Ikasketak utzi eta artaldea hartu zuen 18 urteagaz Eñaut Gallastegik; amagaz batera, gazta ere egiten du

> AKUILUA Aitziber Basauri
Argi zuen artzain izan nahi zuela, eta artaldeagaz hasi zen Eñaut Gallastegi, orain sei urte. Amagaz batera, gazta egiten ere hasi zen, duela hiru urte. Abeltzaintzatik bizitzea ez dela erraza aitortu du.

Bikote ona osatzen duzue amak eta zuk, ezta?
Hala da, bai! Honetan ere sartu dudala esaten dit. Orain dela sei bat urte hasi nintzen neure kabuz ardiekin. Ama langabe geratu zenean, inbertsioak egiten hasi ginen. Orain hiru bat urte, gazta egiten hasi ginen.

Ikasketak utzi eta ardiak hartzea ez zuten ulertuko askok... Ez. Familian bertan ere izan nituen tirabirak, baina, bueno...

Eta, zer diote orain?
Banoala aurrera. Argi neukan nahi nuena. Txikitatik izan dudana afizioa da. Etxean ardiarik ez, baina, okelarako behiak izan ditugu. Badaude oraindik.

Zer dela-eta artzain?
Gustuko dut, besterik gabe. Ez dakit zergatia esaten. Gustatzen zaizkit ardiak, eta hareekin hastea pentsatu nuen.

130 ardi dituzu. Erraza da halako artaldea gobernatzea?
Korta eta instalazio berria jarri ditugu, eta erraz gobernatzen dira. Bestela, pertsona baten zat bakarrak lan handia da. Ardientzako azpiegitura aproposak izan ezean, nekosoa da, gaitza. Ordu asko behar dituzu horretarako.

Artzai Gazta elkarteko kide zara. Produkzio kate osoa kontrolatzen da bertan, ezta?
Bai; guk geure ustiapeneko esneagaz egiten ditugu gazta guztiak. Hala ere, Artzai Gazta elkartean ez banengo ere, filosofia horri jarraituko nioke: norberaren ardiek emandako esneagaz egitea gazta. Neure burua ez dut gaztagiletzat, artzaintzat baino. Gaztagileak kanpotik erosten du esnea; guk etxeko ardiek emandako esnea erabiltzen dugu. Abeltzaintzatik bizi ahal izatea da kontua, ez gaztatik. Baina, horretarako, gazta egin behar da.

Artzai Gazta elkarteak horretan laguntzen dizu?
Teknikariak daude behar duzun laguntza emateko. Gazta ona egin ezean, besteen mailan egon ezean, ez dago zereginik.

Idiazabal izendapeneko gazta egiten duzu. Dedikazio eta mimo berezia eskatzen du?
Idiazabal marka bat da, ize-na ematen dizu. Saltzen eta aurrera egiten laguntzen du. Hala ere, guk egindako gazta berdina da, Idiazabal ipini edo ez. Bertako produktua eta kalitatekoa dela ere bermatzen du.

Zein da zure egunerokoa?
Ardiak 08:00etan jezten ditut. Gero, bazkaldu aurretik, jaten emon, gazta egin, behiak gobernatu... Siesta apur bat egin, eta berriro hasten naiz, 18:00etatik 22:00etara.

Luzea eguna...
Bai, baina, nire martxan.

Ez da beste edozein gazteren moduko bizimodua.
Ez. Lagunartean ikusten dut martxa desberdina daramagula.

Parrandan edo lagunekin egoteko denborik bai?
Udan. Sanfermine-tan hasi eta... bada-zeregina etxean, baina, lotura ez da neguan bestekoa: azaroan hasten dira erditzeak, eta uztaile arte lan handia izaten da. Hala ere, afizioa ofizioa dut, eta zorionekoa naizela uste dut.

Ez da erraza izango, ezta?
Ez da erraza honetaz bizitzea. Laguntza gutxi daude. Orain daki-danagaz, agian bestela jokatu nuen. Gauzak ondo joanda ez dago arazorik, baina, urte batzuk txarrak izan ditugu. Ez naiz damu, baina ez da erraza, ordu asko eskatzen du eta.

Otsailleko euriek kalteak eragin dizkizue, ezta?
Lur-jausi batek instalazioen azpialdea hondatu zigun. Lanak amaitu gabe zeuden, baina enpresa eraikitzaileak bere gain hartuko duela dio. Disgustua hartu genuen. Aurtengoa joan da, eta orain, datorren urteari begira gaude.



LAUHORTZA

JOXE GARAIZABAL
Irakaslea



Aldats behera

Mende bat pasa dela, baserriak indar handia zeukan. Beharrezko guztia ez bazen, gehiena lortzen zen baserrian. Baserriarra ez zegoen inoren menpe. Naturarekin bat. Bizitza zabala eta lotua zen, beharri eta naturari lotua.

Jende gehiegi etxerako eta, inguruko baserri eta txabola guztiak beteta, jendeak kanpora joan behar izan zuen, askok Ameriketara. Bidaia triste eta bizitza latza.

50eko hamarkadan industria indartu zen, baserriak hustu, soro eta zelaietan pinua sartu, eta fabriketara. Baldintza oso kaskarretan lehertu arte behar egin, baina lanorduak bete ostean, denbora libre. Lotura gutxiago, soldata seguruagoa, bizitza alaiagoa eta askeagoa ustean.

Gaur baserri bat daukanak arazo bat dauka. Gaur egun ezin da baserri bizi, lur sail zabalak izan eta inbertsio handiak egin ezean.

Salgai jarriz gero, erosoenak eta hurbilekoenak harrizko hormaz inguratutako jau-regi bihurtzeko saltzen dira. Eta pozik, datorrena auzizalea ez bada.

Gazteek ezin dute erosi garestia delako eta diru-laguntzarik ez daukatelako.

Ilusioa bai baina dirurik ez daukaten gazteei laguntza emanez gero, hizkuntza mantenduko da, natura zainduko da, elikagai sanoak ekoiztuko dira. Bizitza hobea, lasaia, osasungarriagoa eta naturalagoa bizitzeko lanpostu duinak dauzkaten baserriarrak edukiko genituzke.

Baina norik ematen ditu laguntzak? Nori? Eta zertarako?

GUK
LEA ARTIBAI

• BATXILERGOA
• LANBIDE HEZIKETA

ERDI MAILA

- Geroa kateko inbertsioak (guztira, egunkari, instalazioak, soro)
- Abeltzaintzaren bizi-errealitateak

GOI MAILA

- Abeltzaintzaren errealitateak
- Abeltzaintzaren errealitateak
- Abeltzaintzaren errealitateak
- Abeltzaintzaren errealitateak
- Abeltzaintzaren errealitateak
- Abeltzaintzaren errealitateak

ARRATEGALDEZ

- Abeltzaintzaren errealitateak

ATE IREKIAK
APIRILAK 9, 11.00ETAN

lea artibai
Ikastetxea
Abeltzaintza

94 618 90 02 | info@leartibai.com | www.leartibai.com